

# IMMIGRAZIOA ETA EUSKARA BIZIBERRITZEKO SAIOAK EAEn

2005eko udazkena

M. Ixabel Ezponda

## 0.- Aurkibidea

1.- Atarikoa

2.- Datu kuantitatiboak EAEn

3.- Abian jarritako ekimenak

– 3.1.- Ekimen instituzionala: Herri-Administrazioetatik abian jarritakoak:[

✓ Eusko Jaurlaritza:

- Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila. Kultura Saila
- Hezkuntza Saila

– 3.2.- Gizarte-eragileetako bat: IPES-Palanka

4.- Zenbait kontzeptu teoriko, labur-labur

5.- Beste lurraldeetako esperientziei begira: Katalunia eta Quebec

6.- Gogoeten entresaka: han-hemenka bildutakoak

7.- Datu demolinguistiko batzuk

8.- Bateratze-lana eta zenbait apunte

Migrazioa gertakari historikoa dugun arren, ezagun bezain ezezaguna egiten zaigu aldi berean:

Ezaguna, euskal gizartea bera emigratzaile izan delako mendeetan barrena, eta baita immigrazio-hartzaile ere: XIX. mendearen amaieran hasi eta XX. mendean zehar, esate baterako, biak gertatu ziren aldi berean, euskal emigrazioa, diaspora, kanpoalderantz (Amerikara batez ere) eta immigrazio espainiarra Euskadirantz, Bizkaia eta Gipuzkoara bereziki. Eta ezezaguna, berriz, oraingo migrazio-mota hau bestelakoa dugulako, oso heterogeneoa, Europar Batasuneko eta hortik kanpokoa, Afrika eta Hego Amerikatik etorria gehienbat, bizimodu hobe baten bila; maila sozioekonomiko baxuko immigrazioa, neurri batean behintzat.

Egungo migrazio-fluxu hauek mundu zabalean ari dira gertatzen, egoera ekonomiko global bezain desorekatuaren poderioz batik bat. Aditu nahiz erakunde guztiak bat datoz immigrazioa etengabe gorantz doan errealitatea dela adierazten, bai hemen, bai inguruko herrialde europarretan, baita mundu zabalean ere. Pentsatzekoa da, hortaz, hazkundeak progresio horri eutsiz gero, etorkizun hurbilean immigrazioak toki nabarmena hartuko duela bazterrotan; ikuskizun dago hala ere.

Hori horrela, urtez urte etengabe handituz joan den gertakaria izanagatik ere, EAEn finkatutako atzeritarren bolumena ez dirudi oraingoz handia, termino kuantitatibo zein konparatiboetan. Bere bolumen koxkorrean ordea, eragina antzematen hasia da dagoeneko hainbat alorretan, baita euskara biziberritzearenean ere.

Giza paisaia aldatuz doa, eta errealitate diferentea ari zaigu eratzten, askotarikoa, konplexua, aldakorra, eta neurri batean ezezaguna, hizkuntza-plangintzaren, hizkuntza-politikaren nahiz gizartegintzaren ikuspuntutik ondo kontuan hartu beharko dena prozesu sozialetan eragiten jarraitu nahi izanez gero.

Batzuk mesfidantzaz dakusate fenomeno hau, eta gertakari aberasgarri gisa berriz, beste batzuek. Euskal lurralde hauetako hazkunde ekonomikoari nahiz zaharberritze demografikoari immigrazioak egiten dion ekarria hor badago ere, egia ere bada hizkuntzen alorrean immigrazioaren etorrerak ageriago uzten duela euskara eta auzoko erdaren arteko indarren desoreka, eta berau inertzia soziolinguistikoen menpe jokatzen utziz gero, immigranteak indar sozial, ekonomiko eta politiko gehien duen hizkuntzaren alde joko duela gehienetan.

Garai aldakorrak bizi ditugu, eta badakigu aldaketak, gehienetan, erronka bihurtzen direla gutxiengoan eta ahulen dagoenarenean: orain dozena bat urte teknologia berrien etorrera izan zen bezala, orain, berriz, immigrazioa dugu. Euskal hiztunen komunitateak, hortaz, adi eta lanean segitu beharko du orain arte bezala, itxura batean kontrako mehatxu izan daitekeen horri buelta eman eta aldeko bihurtzeko, ahal den neurrian behinik behin.

Idazlan honen helburua EAeko hiru lurraldeetako immigrazio datu sorta bat, abian jarritako ekimenak eta han-hemenka plazaratu izan diren gogoeta-proposamenak biltzea da, collage moduko bat osatuz eta euskara biziberritzeko saioari loturik betiere. Nafarroako eta Iparraldeko daturik eskura ez dugunez, landutako esparrutik at utzi ditugu.

Immigrazio-mota hau hartzen ari den itzala ikusita, pentsatzekoa da hizkuntza-politika nahiz -plangintzako erakundeak pre-okupatzen hasiko direla, eta landuko dutela azterlan exhaustibo eta osatuagorik etorkizun hurbilean.

## Datu kuantitatiboak

Atzerriko immigrazioa ondo kuantifikatu gabe dagoen gertakaria da. Espainiako estatuak eta beste horrenbeste ingurukoek ere, egun ez dakite zehatz-mehatz zenbat etorkin bizi diren beren lurraldeetan, fenomeno honek horren berezkoak dituen irregulartasun-egoerak direla medio. Hori horrela, lan honetan erabiliko ditugun datu kuantitatiboak iturri ofizialek, Estatistikako Espainiako Institutu Nazionalak (INEK), argitaratuak izanagatik, errealitateari hurbiltzeko saio gisa hartu beharko dira gehiago, deskripzio zehatz gisa baino.

Erabiliko diren datuak udal-eroldarenak dira, eta ez zentsuarenak. Zenbait adituren esanetan atzerritarren kopurua hobekien kuantifikatzeko dagoen iturririk fidagarriena INEK urtero landu ohi duen biztanleen udal-errola da. Hala ere, zehaztapen hauek egin beharra dago:

- Udal-eroldako atzerritar-kopurua ez da bat etortzen legezko egoitza-baimena duen atzerritar-kopuruarekin, hauek gutxiago izan ohi baitira. Tarteka egoera legezatzeko epeak zabaltzen dira, 2005eko maiatzean izan zen azkena.
- Udal-errola INEK eta udalek koordinatuta egin ohi da. Hala ere, zenbaketan desbideraketak gertatu ohi dira, gain-desbideraketak hain zuzen: etorkinak beste norabaitera alde egin eta bere erregistroa ezabatzen ez denean; edota beste udalerrri batean erroldatu eta, dagokion udal-errolan baja eman ez, eta bietan erroldatuta ageri denean. Horrelakoetan gain-desbideraketa ematen da.

Kontrako fenomeno ere eman ohi da, azpi-desbideraketa alegia, etorkinak erroldatu nahi-eza edota erroldatu-ezina direla kausa.

Horregatik guztiagatik eta ofizialak izanda ere, datuok hurbilpen saio gisa hartu behar dira.

## 2005eko Udal Erroldaren aurrerapena

INEK Udal-Erroldaren aurrerapen gisa emandako datuen arabera, Espainian 2005eko urtarrilaren 1ean 3,6 milioi atzerritar zeuden erroldaturik, biztanleen % 8,4 alegia, Erresuma Batuan (%3,5), Italian (%2,5) edo Frantzia (%8) baino gehiago.

- Euskadiko Autonomia Erkidegoan atzerritarrak **72.767** ziren (biztanleen % **3,4**), hots, etorkin gutxien zuen laugarren erkidegoa zen. Horietatik, eta iturri berberaren arabera, 33.000 lagun inguru egoera irregularrean dago. Aldiz, EUSTATEk egin estimazio baten arabera, erroldatuta gehi egoera irregularrean daudenak batuz gero, **140.000 etorkin inguru** izango genituzke EAEn, populazioaren % **6,8** alegia. Numeroen dantza handia da, beraz. Nolanahi ere esan beharrik ez dago hazkundea nabarmena izan dela: 2003an EAEn erroldatutako etorkinak 49.231 ziren; beraz, hazkundea % 47,5 izan da INEko datuekiko.
- Nafarroan etorkinak 49.500 dira (%8,4).
- Katalunian, berriz, etorkinak 795.800 dira, hau da, populazioaren %11,4.


EAEko hiru probintzietan banatuta, Araban erroldaren %5 eta Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, % 3 pasatxo ziren.

Hala ere, eta oro har han-hemenka irakurri izan ditugun iragarpenen kontra, EUSTATEk egin proiektzioen arabera, 2005. urtetik aurrera immigranteak gero eta gutxiago izango omen EAEn: mende-hasierako urteotan goraka izan duen bilakaera eten ondoren, beheraka egingo omen poliki-poliki, eta, horrenbestez, 2015. urtean atzerriko 3.000 etorkin inguru baino ez omen dira etorriko (*Biztanleriaren Proiektzioetako Estatistika 2015*, 2005eko uztailaren 28ko prentsa-oharra).

## 2003ko udal-errodaren datuak

Goiko lerroetara ekarritako datuak eguneratuenak izanagatik, ez dira ikuspegi osoena ematen dutenak. Horrexegatik, 2003ko datuetara joko dugu, INEko datuak abiapuntu, **IKUSPEGI-Immigrazioaren Euskal Behatokiak** argitara emandako datuetara hain zuzen, eguneratuenak ez badira ere geroko tendentziak azaltzen dituztelakoan. Ikus dezagun ondoko taula:

2. grafikoa.  
Biztanleria atzerritarraren banaketa eskualdeka lurralde historiko bakoitzean. EAE. Errolda 2003.



Iturria: INE

## 2. Atzeritar kopuruaren ehunekoak eskualdeetan


2. taula Biztanleria atzeritarraren banaketa eskualdeka lurralde historiko bakoitzean. Errolda 2003

	Biztanleria guztira		Biztanleria Atzerritarra	
	N	N	Atzeritartasun %	
Araba	Kantauri Arabarra	33.007	329	1,00
	Gorbeia Inguruak	7.277	212	2,91
	Arabako Lautada	235.736	9.375	3,98
	Arabako Mendialdea	3.137	91	2,90
	Errioxa Arabarra	10.301	330	3,20
Gipuzkoa	Arabako Ibarrek	4.902	108	2,20
	Araba guztira	294.360	10.445	3,55
	Donostia	317.283	7.784	2,45
	Goierri	64.003	1.152	1,80
	Tolosaldea	45.234	651	1,44
Bizkaia	Urola- Kostaldea	67.642	1.286	1,90
	Deba Garaia	62.159	822	1,32
	Bidasoa Beherea	73.529	2.183	2,97
	Deba Beherea	54.536	1.000	1,83
	Gipuzkoa guztira	684.386	14.878	2,17
Bizkaia	Aratia Nerbioi	21.562	360	1,67
	Durangaldea	91.812	1.433	1,56
	Enkartzioak	29.833	408	1,37
	Gernika-Bermeo	44.327	761	1,72
	Bilbao Handia	873.379	18.983	2,17
Bizkaia	Markina-Ondarroa	26.156	748	2,86
	Plentzia-Mungia	46.359	1.215	2,62
	Bizkaia guztira	1.133.428	23.908	2,11

2003ko udal-errodaren datuei erreparatu, probintziaka honako alderdi hauek ikusiko ditugu:

- Etorkin gehien dituen lurraldea Bizkaia da: 23.908 etorkin (EAEko etorkin guztien %48,96)
- Bigarrena, Gipuzkoa: 14.878 (EAEko etorkin guztien% 30,22)
- Hirugarrena, Araba: 10.445 (EAEko etorkin guztien %21,22)
- Hiriburuak eta beren eskualdeak dira, zehaztapenak zehaztapen, etorkinen bilgune:

- ♦ Arabako Lautadan erroldatuta daude EAEko immigranteen %19,04 (Gasteiz eskualde horretan dago).
- ♦ Donostialdean EAEko atzerritarren %15,81 bizi da
- ♦ Bilbo Handian EAEko atzerritarren ia %39.
- ♦ Ohar osagarri gisa esan dezagun Espainiako Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak *Atzerritartasunari buruzko 2003ko Urtekarian* zioenez 49.231 horietatik 28.600 zirela legezko egoitza-baimena zutenak.
- ♦ Hiru eskualde horietan biltzen dira EAEko atzerritarren % 73,41: bertako populazioaren molde demografikoi jarraiki, etorkinek ere hiriburuetara eta herri handietara biltzeko joera dute, eta horien kopurua txikiagoa da lurraldeko beste eskualde batzuetan eta nekazal eremuetan.




**Kontzentrazioa.** Aurreko datuek joera argi bat adierazten duten arren, kontzentrazioa ez da berdina hiru probintzietan; hori ere lurralde bakoitzak berezkoak dituen ezaugarri demografikoei zor da, gehienbat:


- Araban dago kontzentrazioirik handiena, hango atzerritarren %90 bizi baita Arabako Lautadan (9.375 lagun)
- Gipuzkoa beste muturrean dago, atzerritarrak sakabanatuago baitaude eskualdeetan. Alabaina ezin da esan zeharo sakabanatuta daudenik; izan ere, Donostialdean bizi baita Gipuzkoan bizi diren atzerritarren erdia (7.784 lagun).
- Bizkaian, hamar immigrantetatik zortzi bizi dira Bilbo Handiko konurbazioan (18.983 lagun).

Hurrengo infografietan datu berberak ikusiko ditugu, kopuru absolututan lehenik, eta populazio-ehunekotan gero.

4. grafikoa.  
EAEko eskualdeak biztanleri atzerriar kopuruaren arabera. Errolda 2003



3. grafikoa.  
EAEko eskualdeak atzerriarrentasun ehunekoaren arabera. Errolda 2003



- ♦ Eskualdeka eta portzentualki 2003an Arabak zuen atzerriarren ehunekorik handiena, Arabako Lautadan hain zuzen. Gainerako eskualde arabarretan kopuru absolututan atzerriar gutxi bazuten ere, portzentualki indize altuenetakoa zuten. Arabako Errioxa zen ehuneko altua ematen zuten beste lurraldea.
- ♦ Gipuzkoako eskualdeetan, atzerriarren ehunekoa % 2 ingurukoa zen bertako populazioarekiko. Nabarmentzekoak ziren hala ere Bidasoa Beherea eta Donostialdea. Lehenengoan atzerriarren ehunekoa %2,97koa eta bigarreanean %2,45ekoa.

- ◆ Bizkaian, berriz, portzentualki, Plentzia-Mungia eta Markina-Ondarroa dira ehunekorik altuenak dituzten eskualdeak. Ez da ahaztu behar Markina-Ondarroa dela EAEko eskualderik euskaldunena.

**1. taula. EAEko biztanleria egoiliar atzerritar erroldatua eskualde eta sexuaren arabera. 2003. urtea**

	Guztira		Gizonezkoa		Emakumezkoa		
	N	%	N	%	N	%	
Araba	Kantauri Arabarra	329	0,67	174	52,89	155	47,11
	Gorbeia Inguruak	212	0,43	126	59,43	86	40,57
	Arabako Lautada	9.375	19,04	5.191	55,37	4.184	44,63
	Arabako Mendialdea	91	0,18	54	59,34	37	40,66
	Errioxa Arabarra	330	0,67	178	53,94	152	46,06
	Arabako Ibarrek	108	0,22	60	55,56	48	44,44
	<b>Araba guztira</b>	<b>10.445</b>	<b>21,22</b>	<b>5.783</b>	<b>55,37</b>	<b>4.662</b>	<b>44,63</b>
	Gipuzkoa	Donostia	7.784	15,81	3.831	49,22	3.953
Goierri		1.152	2,34	664	57,64	488	42,36
Tolosaldea		651	1,32	341	52,38	310	47,62
Urola- Kostaldea		1.286	2,61	717	55,75	569	44,25
Deba Garaia		822	1,67	450	54,74	372	45,26
Bidasoa Beherea		2.183	4,43	1.151	52,73	1.032	47,27
Deba Beherea		1.000	2,03	517	51,70	483	48,30
<b>Gipuzkoa guztira</b>		<b>14.878</b>	<b>30,22</b>	<b>7.671</b>	<b>51,56</b>	<b>7.207</b>	<b>48,44</b>
Bizkaia	Arratia Nerbioi	360	0,73	223	61,94	137	38,06
	Durandaldea	1.433	2,91	789	55,06	644	44,94
	Enkartzioak	408	0,83	226	55,39	182	44,61
	Gernika-Bermeo	761	1,55	388	50,99	373	49,01
	Bilbao Handia	18.983	38,56	9.167	48,29	9.816	51,71
	Markina-Ondarroa	748	1,52	497	66,44	251	33,56
	Plentzia-Mungia	1.215	2,47	570	46,91	645	53,09
	<b>Bizkaia guztira</b>	<b>23.908</b>	<b>48,56</b>	<b>11.860</b>	<b>49,61</b>	<b>12.048</b>	<b>50,39</b>
<b>EAE guztira</b>	<b>49.231</b>	<b>100,00</b>	<b>25.314</b>	<b>51,42</b>	<b>23.917</b>	<b>48,58</b>	

Iturria: INE

**Sexuaren araberako** banaketari dagokionez, berriz, gizonen eta emakumeen arteko proportzioa nahiko paretsua da eskualde gehienetan, baina, oro har, gizonezkoen ehunekoa emakumezkoena baino zertxobait handiagoa izan da 25.314 gizonezko, (% 51,42) eta 23.917 emakumezko (%48,58).

Markina-Ondarroa eta Arratia-Nerbioi eskualdeak urruntzen dira gehien parekotasun orokor horretatik; izan ere, lehenengoan emakumezkoen ehunekoa %33,56koa da eta, bigarrenean, berriz, %38,06koa. Hala ere, zenbaki absolutuetan, immigrante kopuru txikiez ari gara.

Adituen esanetan aldeak daude jatorriaren arabera: feminizazioa Erdialdeko eta Hegoaldeko Amerikatik eta Europar Batasunaz kanpoko Europatik datorrenean, eta nolabaiteko maskulinizazioa, berriz, Europar Batasunetik eta Afrikatik datorrenean.

**Adinari dagokionez**, eta Immigrazioari buruzko Euskal Planean esaten denez, tarteko adin-zerrendan dago biztanleria etorkin gehiena. EAEn bizi den atzerritarren erdia gutxi gorabehera 25 eta 40 urte bitarteko zerrendan dago, lanerako eta sema-alabak izateko edadean alegia. Beren jaiotza-tasari ere erreparatu beharko zaio: INEK 2004rako eman datuen arabera immigranteenak bikoiztu egiten zuen EAEko biztanleen jaiotza-tasa. Hala ere, adituen esanetan jaiotza-tasari egiten dion ekarria epe laburrekoa da, jaitsi egiten baita bigarren eta hirugarren belaunaldietan, hau da, etorkina harreragizartearen moldeetara egokitutakoan.

Arian-arian, nolabaiteko garrantzia hartzen ari da familia-biltzearen dinamika, eta geroz eta adin txikiko gehiago datoz dira gure gizartera.

Euskadin jaiotako bigarren belaunaldia ere sendotzen hasia da, oso geldo bada ere.



**Lan-arloari dagokionez**, gaur egungo immigrazio-fenomenoa lan egin beharrari lotzen zaio gehienbat., eta ezkutuko ekonomiari askotan. Etorikin-talde gehienaren asmoa lan-merkatuak sarbidea lortzea da. Lan-motari dagokion mapa egiterakoan, ordea, ezkutuko enplegua, legezko baimen-agirien falta, etab.ak zaildu egiten du datu fidagarriak eskaintzea: eraikuntza, ostalaritza, nekazaritza, arrantza, ganadutza, eta etxeko lanak nahiz edadeko pertsonen zaintza dira etorikin gehien hartu dituzten arloak oro har. Normalean kualifikazio eta gizarte-ospe baxuko enpleguak izaten ditu, bertako biztanleriak bete gabe izaten dituenak.

Informazio osagarri gisa aipatu, 2005eko maiatzean beren egoera araupetzeko prozesua amaitu ostean erakunde ofizialetatik eskainitako datuen arabera, aurkeztu lan-kontratuak alor hauetakoak zirela:

-11.206: Bestelako lanbideak (Araba: 977; Bizk: 3.788; Gip: 1695)

-2.238: Etxeko lanak etxe soltetan ( Gip: 354; Bizk: 879; Arab: 73)

-5.670: Etxeko lanak etxe bakar batean (Araba:410; Bizk: 2381; Gip 922)

EAEn, etorkinen ikasketak mailari dagokionez, % 6,6k ez zeukan ikasketarik, % 22,1ek Lehen Hezkuntza egina zuen, % 27,1ek Bigarren Hezkuntza eta % 8,6k unibertsitate ikasketak (EAEn % 25ek). % 30,9k ez dauka titulurik (Eustat, 2001eko maiatzeko errolda).

**Jatorriaren arabera eskualdekako banaketan**, berriz, zehazkiago ikusten da zein den etorkinen banaketa, jatorriaren eta harrera-eskualdearen arabera. Guztira, eta 2005ean eman zaizkigun datuen arabera, hegoamerikarrak dira giza talderik handiena (Kolonbiarrak guztien %14 eta ekuadortarrak %10), marokoarrak gero (%9,23), portugaldarrak (7,29), errumaniarrak (% 5,83) eta argentinarrek (%3,8).

Ez dugu beren hizkuntzei buruzko datu zehatzik, ezta Euskal Immigrazioari buruzko Planean bertan ere ez dira jaso. Hegoamerikar hauen kasuan pentsatzekoa da gaztelaniaz egingo dutela.

Ikus hurrengo orrialdeko koadroa jatorriaren arabera eskualdekako banaketa ikusteko (2003ko datuak):



Oharra: toki-falta dela eta, bakar-bakarrik etorkin-talderik handienak ekarri ditugu koadro honetara:

Eskualdea	Biztanleria guztira	Elebidunak		Elebidun hartzaileak	Elebidun hartz.		Etorkinak guztira	Latinoamerika	Magreb		Txina	Europa
		Elebidunak	%		Elebidun hartz.	%						
Kantauri Arabarra	31.321	6.860	21,9	6.364	20,32	329	107	133	0	7	70	
Gorbeia Ingurua	6.502	2.439	37,5	1.035	15,92	212	65	19	5	0	118	
Arabako Lautada	217.825	32.508	14,9	44.329	20,35	9375	3866	2228	519	197	2319	
Arabako Mendialdea	3013	345	11,45	308	10,22	91	34	25	0	0	31	
Errioxa Arabarra	9533	1226	12,86	1014	10,64	330	77	25	3	0	197	
Arabako Ibarrek	4522	315	6,97	528	11,68	108	42	5	0	0	57	
<b>ARABA GUZTIRA</b>	<b>255.648</b>	<b>41.807</b>		<b>51.728</b>		<b>10.445</b>	<b>4191</b>	<b>2435</b>	<b>527</b>	<b>204</b>	<b>2792</b>	
Donostialdea	295.838	115.603	39,1	56.679	19,16	7784	3237	553	234	132	3334	
Goierri	60.293	37.284	61,8	6.273	10,4	1152	382	229	52	14	456	
Tolosaldea	41.900	30.251	72,2	4.872	11,63	651	269	106	36	0	214	
Urola-Kostaldea	62.637	50.157	80,1	4.849	7,74	1286	532	271	34	11	369	
Deba Garaia	59.142	38.846	65,7	6.311	10,67	822	360	72	5	15	266	
Bidasoa Beherea	67.815	25.875	38,2	10.102	14,9	2183	781	169	98	43	1023	
Deba Beherea	51.923	31.307	60,3	6.259	12,05	1000	408	292	10	10	257	
<b>GIPUZKOA GUZTIRA</b>	<b>639.548</b>	<b>329.323</b>		<b>95.345</b>		<b>14.876</b>	<b>5969</b>	<b>1692</b>	<b>469</b>	<b>225</b>	<b>5919</b>	
Arrati Nerbioi	20.246	11.409	56,4	2.650	13,09	360	178	89	22	0	68	
Durangaldea	86.077	40.596	47,2	14.372	16,7	1433	563	376	60	17	378	
Enkartzazioak	28514	3640	12,77	4971	17,43	408	202	26	4	0	174	
Gernika-Bermeo	42.164	31.789	75,4	4.868	11,55	761	328	35	9	8	253	
Bilbo Handia	828.162	136.876	16,5	176.067	21,26	18983	10498	1397	1471	866	3897	
Markina-Ondarroa	24.973	21.857	87,5	1.411	5,65	748	145	69	218	0	241	
Plentzia-Mungia	42.558	20.113	47,3	7.744	18,2	1215	583	84	10	14	459	
<b>BIZKAIA GUZTIRA</b>	<b>1.044.180</b>	<b>262.640</b>		<b>207.112</b>		<b>23.908</b>	<b>12497</b>	<b>2076</b>	<b>1794</b>	<b>905</b>	<b>5470</b>	

**Ondorioak:** Datuokin ondorioak ateratzerik zilegi bada, ondokoa aipatuko dugu:

- Eskualde euskaldunenetara iritsitako etorkin kopurua ez dirudi, oraingoz behintzat, handia denik ez absolutuki, ez portzentuarki.
- Etorkinen joera orokorreari erreparatuta —gune populatuenetara biltzeko joera— arretaz jarraitu beharko dira eskualde euskaldunenetako udalerririk handieneko joera (EBPNko D ereduaren 5.000 biztanletik gorakoak: Ondarroa, Azpeitia, Tolosa, Zarautz, Lekeitio, Azkoitia, etab.ena), pentsatzekoa delako lan-eskaintza medio horietara joko dutela, udalerririk txikiak baino.

Beste horrenbeste EBPNko C1 eta C2 ereduak udalerririk ere, hots, bi herritarretik bat euskal hiztuna duten udalerririk.

- Bide beretik jo beharko da gaur egun gehienbat euskaraz bizi diren udalerririk txikiak ere, hauetan nahiz eta kopuruz gutxi iritsi, eragin handiagoa antzemango baita.
- Immigranteak oro har, erdaldun eta elebidun gehienak batera bizi diren eskualdetara bildu dira, hiriburuen eskualdetara hain zuzen ere. Hortaz, euskal hiztunen masa kritikoa bertan biltzen den neurrian, hiri handiak eta hiriburuak ageri dira berriro ere proba-toki nagusi gisa.



## Hainbat Kontzeptu Teoriko Labur-Labur

Datu kuantitatibo batzuk azaldu ondoren, ikus ditzagun labur-labur immigrazioaren alorrean sarri erabiltzen diren zenbait kontzeptu teoriko: akulturazioa, integrazioa, asimilazioa, segregazioa, dekulturazioa, anomia eta multikulturalismoa.

*Akulturazio* esaten zaio, ohiko adieran, kultura batek bere ezaugarriak galtzeari beste kultura batekin harremanetan jartzean. Hala ere, zehazki ez omen hori identitate sozialen azterketan John Berryk —sona gehien duten adituetako batek— ematen dion adiera: egile honen ustez, bitariko norabidea duen prozesua da, etorkina eta harrera-gizartea bata besteari, elkarri nola moldatzen-egokitzen zaizkion, eta biengan garatzen den estrategia-multzoa izendatzen duena. Elkarri egokitu behar horrek —eta batez ere etorkinak egokitu beharrak— aldaketak eragiten ditu hainbat alorretan, identitatean, jarreretan, taldeen arteko jokabideetan, hizkuntza-portaeretan, etab.etan.

Beste egile batzuek —M.J. Azurmendi, Romay eta J.F. Valenciak kasu— hitz honi darion kutsu negatiboa saihesteko, *kulturazio* deitzea proposatzen omen.

John Berryk, ondoko koadroan ikusten diren bi parametro konbinatuz, lau akulturazio-estrategia bereizten ditu: integrazioa, asimilazioa, segregazioa eta dekulturazioa.

		Berezko identitatea eta ohiturak gordetzen dira	
		BAI	EZ
Harrera-gizartearekiko harremanak sortu eta mantentzen dira	BAI	Integrazioa	Asimilazioa
	EZ	Banantzea/Segregazioa	Dekulturazioa

*Integrazioa* gertatuko da etorkina bere jatorrizko taldeko ezaugarriei uko egin gabe, harrera-taldearen kulturarekin ere identifikatzen denean.

*Asimilazioa* berriz, bere taldekoa utzi, eta harrera-taldearen kulturarekin ordezkatzeko duenean.

*Segregazioa/Banantzea*, beren jatorrizko kulturari eutsi bai, baina segregazioaren kasuan talde menperatzaileak horretara bultzatuta; eta banantzearen kasuan, berriz, menpeko taldearen beraren borondatez.

Dekulturazioa, azkenik, identifikazio kulturalik ez dagoenean.

Historian zehar *asimilazioa* izan omen da estatu-nazio indartsuenek —AEBk, Kanadak, Frantziak edo Australiak adibidez— izan duten joera nagusia, geroztik bakoitzak bere ibili propioa egin badu ere. Badirudi 1960-70ko hamarkadan hasten direla kolokan jartzen asimilazioaren paradigma, hainbat faktore direla medio (interesa duenak irakur dezala, Francisco Torresen artikulua. *De la asimilación al pluralismo. Inmigración y gestión de la diversidad. 2005*, in [www.pensamientocritico.org](http://www.pensamientocritico.org)). Testuinguru horretan Kanadak adibidez bere burua gizarte elebidun eta multikultural gisa aldarrikatuko du. Frantzian beranduago 1980ko hamarkadan jarriko omen eredia kolokan, baita 2005eko udazkenean *beur* gazteen eskutik, besteak beste.

Paradigma pluralista honetan (tokian tokiko izendapena izan duena: multikulturalismoa Kanadan, kultur artekotasuna Quebecen, gutxiengo-politika Herbeheretan...) etorkinek harrera-gizartean esku-hartzea sustatzen dute estatuek, beren kulturari uko egin gabe.

1990ko hamarkadan berriz beste urrats bat ematen dela dirudi, oraingo honetan pluri-etnizismotik identitate komun bat lantzerako, kultura zibiko komun bat lantzerako alegia.

Izenak izen, eta erretorika hutsetik haratago ordea, arazoak bere horretan dirauela, edo gaiztotzen ari dela dirudi, Frantzia edota Londresko gertaerei nahiz immigrazio-legeak estutuz eman zaien erantzunari erreparatuz gero.

EAEko immigrazio-politika berri samarra den honetan, hiru iruzkin ekarri ditugu hona, immigrazioaren aurrean eduki genezakeen planteamenduaz, gogoeta txiki bat eginaraziko digutelakoan.

*Irrumpe de este modo la primera evidencia: la correlación entre modelo social y modelo migratorio. El tratamiento de la inmigración resulta ser fiel reflejo de la sociedad en la que se produce; si ésta demanda Seguridad, aceptará la política de contingentes y la admisión de inmigrantes bajo rígido control policial; si se manifiesta Asistencial promoverá políticas a la manera tradicional de atención a los pobres y se mostrará permisiva con la contratación ilegal o subcontratación de los trabajadores; si se declara Responsable adecuará el modelo inmigratorio a las condiciones de sostenibilidad del propio modelo económico y social, comprometiéndose con la población recibida a dotarles en plazo razonable del status de ciudadanía.*

*Sin embargo, para que el modelo sea sostenible, la igualdad de oportunidades para los inmigrantes, fundamentalmente educación, sanidad y acceso a la vivienda, debe conllevar igualdad de resultados: aportación tributaria, ingresos en Caja de la Seguridad Social, desaparición de bolsas de subsidiados crónicos, inexistencia de fraude... Y esto solo resulta plausible en una sociedad cohesionada, que comparta valores como la identidad colectiva, la ética del trabajo y la mutua ayuda. Estamos por tanto hablando de una ciudadanía compartida con un mismo catálogo de derechos y obligaciones lo cual solo resulta factible si la Comunidad receptora dispone del instrumental político y jurídico para llevarlo a cabo.*

Txema Montero, Koldo Mediavilla, in Hermes 10

Bigarrenik, multikulturalismo hitzak, —bere garaian mestizaia hitzarekin gertatu bezala— zenbaitengan sortzen duen lilura ikusita, Kataluniatik datorkigun ondoko komentarioa:

*Asimismo, habría que tener presente que el recurso a una concepción ingenua de la noción de multiculturalidad, presentada como modelo de la sociedad deseable, puede sugerir la posibilidad, e incluso la conveniencia, de renunciar a construir una comunidad política de ciudadanos fundamentada en unas señales de identidad compartidas. Tal identificación es imprescindible para expresar el equilibrio en el intercambio entre el reconocimiento de los derechos individuales y la solidaridad con las normas que hacen posible la convivencia en una sociedad democrática. La expresión de una ciudadanía concreta, arraigada en un territorio particular, necesita de un lenguaje común fundado en el intercambio de palabras, gestos, valores, símbolos, etc., a los cuales no puede renunciarse. La multiculturalidad acostumbra a ser un punto de partida forzado por las circunstancias, pero no el lugar de llegada capaz de construir una sociedad democrática vertebrada sobre los principios de la ciudadanía*

*(...) La aceptación de las diversidades de los recién llegados no debe anular el respeto a la diversidad interna de la sociedad adonde llegan. En este sentido, y tanto en un caso como en otro, es muy importante distinguir entre expresiones de*

*diferencia que hay que respetar y manifestaciones de desigualdad que hay que superar.*

Hainbaten artean: "Estudio sobre la política de inmigración en Catalunya". La Factoria 2002

Hirugarrenik, oso kontestu berezian idatziak badira ere, beste pasarte hau 2005eko uztailan gazte musulman britainiarrek, hots, guraso immigranteen seme britainiarrek, Londresen herritar xeheen aurka egin atentatuen harira:

*(...) La ausencia de unos valores de pertenencia común es seguramente el punto más importante: a fuerza de remitirles a su particularismo, en nombre de un multiculturalismo tan estúpido como hipócritamente racista, se consigue romper su derecho a ir hacia la sociedad común, a fundirse en ella y, debido a este mismo hecho, se les encierra aún más en su gueto de identidad y cultura.*

*(...) El multiculturalismo en sí no es un problema, sino que el suelo sobre el que reposa es pantanoso: ya no existe la pertenencia común. Pero el multiculturalismo sin comunidad ciudadana de base, sin valores fundamentales verdaderamente compartidos, es la guerra de todos contra todos.*

*(...) Así pues, el dilema es evidente: o somos capaces de proporcionar a estas poblaciones, más allá de su singularidad cultural y confesional, el sentimiento de pertenecer al Nosotros común, a la sociedad de acogida y de nacimiento, y entonces la existencia de esta identidad básica ejerce de escudo contra todas las formas de perversión de la identidad, o bien los mantenemos fuera de la comunidad ciudadana y, en el nombre de sus diferencias culturales (...)*

Sami Nair, filosofo eta politologo frantsesa ("Guerra de identidades en Londres". El País, 2005eko uztailak 21)

Eta azkenik Joseba Irazu Garmendiak, Bernardo Atxagak, Argian egin elkarriketa batean

### **Multikulturalismoa" hitzak zer esaten dizu?**

*«Mestizaia» eta «multikulturalismoa» terminoak, normalean, halako egoera "de facto" boteretsu baten sendotzeko erabiltzen dira: "nik boterea dut, ni gehiengoa naiz, eta gainera ezin dut sufritu kritika, beraz nire poetika izan behar dut". Horretarako daude mila poeta, mila idazle zutabeak egiten dituztenak. Poetikaren arlo horretan, errepresentazioaren alde horretan, kontzeptu batzuk sortzen dira, espreski, botere-harreman bat ezartzen duzula disimulatzeko balio dutenak. "Ni multikulturalista naiz» esaten dizutenean, eta zuk euskaraz hitz egiten baldin badiozu, besteak erdaraz baino ez du jakingo. Gainera gutxiengoa bazara, zuri botako dizute zabor ideologiko guztia, euskaldunak karlistak direla esango dizute, eta bitartean, errepresentazio kazetari boteretsu horien familia gehienak ultrakarlistak izan dira; eta esango dizute mundura itxiak gaudela, hain justu bi hizkuntza dakizkigun euskaldunok gara itxiak, eta bakarra dakien Cuencako hori dago zabalik mundural Kontzeptu horiek makilajea dira. Horren aurrean nahiago dut doktrina klasikoa: ez dut erreserban bizi nahi, nik nire botere pusketan nahi dut, nire bizimodua egiteko modua, eta gero gerokoak*

ARGIAN, 2001eko abenduaren 16a

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

Immigrazioari buruzko eskumen nagusiak Europar Batasunak eta Espainiako Barne Ministerioak badituzte ere, Gernikako Estatutuaren bitartez aitortzen zaizkion eskumenen ildotik, gaia berariaz kudeatzeko Immigrazio Zuzendaritza sortu zuen Eusko Jaurlaritzak, Etxebizitza eta Gizarte Gaien Sailean hain justu.

Zuzendaritza horri aitortzen zaion egiteko nagusia Euskal Autonomia Erkidegorako immigrazioaren alorrean estrategia propio bat zehaztea da, eta horrekin batera:

1. Immigrazioaren alorrean estrategia propio bat zehaztea Euskal Autonomia Erkidegorako.
2. Immigrazioaren alorreko jarduerak planifikatzea eta horri buruzko araudien proiektuak prestatzea.
3. Etorkinak gizartearen txertatzeko eta gizarte-babeseko sistemetan sartzeko ekintzak eta neurriak proposatzea.
4. Immigrazioaren alorrean beste herri-administrazio batzuekin eta Estatuarekin koordinatzeko bideak eta bitartekoak proposatzea, Jaurlaritzaren Lehendakariordetzaren eskumenei kalterik egin gabe, betiere.
5. Etorkinak hartuko dituzten bizilagunak sentsibilizatzeko neurriak eta ekintza asoziatibo eta kultur artekoak laguntzeko neurriak proposatzea eta gauzatzea.

Egiteko horiek eta gehiago ere bideratzeko, nahiz gai honetako politikak artikulatzeko oinarriko dokumentu gisa *Immigrazioari buruzko Euskal Plana (2003-05)* taxutu eta 2004ko apirilean onartu zen, immigrazio-politika instituzional orokorra egituratzeko. 2005a azken urtea zuen hortaz.

Immigrazioari buruzko lehen euskal planak, ahal den neurrian, EAEEn erroldatuta dauden pertsona guztiek beren eskubideak eta betebeharrak berdin erabakitzeke eta aintzat hartuak izateke aukera bermatu nahi du.

Beraz, helburu nagusia etorkin atzerritarrek euskal gizartearen erabat gizarteratzeko aukera lortzea da. Horretarako, funtsezko-funtsezko jotzen du nazionalitatearengatik edozein diskriminazio baztertzeko eta giza eskubideak betetzeko aukera bermatzea: zibilak eta politikoak zein ekonomiko, sozial eta kulturalak, baita betebeharrak nork bere gain hartzea ere.

Hiru printzipio nagusi ditu:

- Berdintasunaren printzipioa
- Erantzukizun publikoen printzipioa
- Gizartearen parte hartzearen printzipioa

Hiru printzipio hauek irizpide politiko omen, eta ez antolamenduzko irizpide instrumental hutsak.

Printzipio operatiboak, berriz, honako hauexek:



- Osotasun printzipioa
- Prebentzio printzipioa
- Normalizazio printzipioa
- Deszentralizazio printzipioa
- Koordinazio printzipioa
- Ebaluazio printzipioa

Planaren menpeko eremua bi arlo nagusitan dago banatuta, arlo instrumentala eta arlo funtsezkoa. Bi horiek ere neurri beran hamairu azpi-arlotan banatzen dira:

- 1.-Erakunde-antolamenduaren arloa
- 2.-Informazioaren arloa
- 3.-Berme juridikoaren arloa
- 4.-Parte-hartze politikoaren arloa
- 5.-Lanaren arloa
- 6.-Gizarteratze eta gizarte baliabidearen arloa
- 7.-Osasunaren arloa
- 8.-Etxebizitzaren arloa
- 9.-Hezkuntzaren arloa**
- 10.-Kulturartekotasunaren arloa**
- 11.-Esku-hartze osagarrien arloa
- 12.-Sentsibilizazioaren arloa
- 13.-Lagundutako garapenaren arloa

Lar-arlo hauetako bakoitzak hainbat lan-ardatz ditu, baita garatzeko proposamenik ere. Proposamen horietako bakoitza burutzea, berriz, sail bati edo batzuei garatzea dagokie.

Euskal kultura eta euskara bi azpi-alorretan lantzen dira nagusiki, hezkuntzarenean eta kultur artekotasunerenean. Jarraian bildu ditugu.

**A.- Kulturartekotasunaren azpi-alorrean** egindako proposamenak ekarriko ditugu hona:

- Etorikin helduei euskara irakasteko Aisa metodoa sortu (20 unitate didaktiko)
- EAEn bizi diren atzerritarrei euskara irakasteko hizkuntza ikastaroak eskaini (60 orduko formatua).
- Euskara, gaztelania, frantsesa ingeles arabiera, amazigh eta txineraren oinarriko ikus-hiztegi bat.
- Hizkuntza-harrerako ikastaroak ematen dituzten irakasleentzako on-line aholku zerbitzu bat sortu.
- Euskararen aldeko urteko sentsibilizazio kanpainari euskarak etorkinen artean harrera hobea izateko euskarriak, bideak, eta ekintzak gaineratu.
- EAEn etorkinen hizkuntza-prestakuntzari buruzko mintegi bat egin.
- Etorikin-elkarteei zuzeneko deialdi bidez, euskara sustatu eta erabiltzeko jardueratarako languntza-ildoak zabaldu.
- Beste erakunde publiko batuekin batera, gazte etorkinei euskaltegi-sarearen bitartez euskara irakasteko ekintzak bultzatu.
- Euskararen sustapen, zabalkunde eta/edo normalizazioarako diru-laguntzen deialdiko jardunaldi, mintegi eta kongresuei buruzko atalean, kultur artekotasunaren gaia garatzen duten ekimenak diruz laguntzeko berariazko atal bat hartu.

- Etorkin-elkarteek euskarara hurbiltzeko ekimenak aztertu:a) Giza talde horietan euskara sustatzeko egiten diren jarduerak b) etorkinen elkarteek euskal hiztunen artean txertatzeko dituzten zailtasunak eta proposamenak. c) Etorkinek beren ama-hizkuntza mantentzeko lotutako zailtasunak, alde onak eta proposamenak.
- Euskaren sustapen, zabalkunde eta/edo normalizaziorako dirulaguntza deialdian, etorkinen euskararen erabilera sustatzera zuzendutako ekimenek eta proiektuek bultzatzeko atal bat barne hartu, eta etorkin-elkarteek edo horiekin lankidetzan egindakoei lehentasuna eman.
- Etorkin-elkarteak Euskararen Nazioarteko Egunean parte hartzera gonbidatu.
- Quebeceko Gobernuarekin lankidetzak-akordio bat egitea: topaketak, bisitaldiak eta mintegi bat.

**B.- Hezkuntzaren azpi-alarrean**, berriz, proposatzen den bigarren norabidean, hots, *gazte atzerritarren hizkuntza-mailako integrazioa bultzatzea, euskararen ikaskuntza bereziki kontuan hartuta*, honako proposamen hauek egiten dira:

- Beste erakunde publiko batzuekin batera, gazte etorkinei euskategi-sarearen bitartez euskara bultzatzeko ekintza bultzatzea.
- Kultura Sailarekin eta beste erakunde batzuekin elkarlanean aritzea eskolan hasitako euskalduntze-prozesuari jarraipena emango dioten ekimenak bultzatzeko, euskaltegien sarearen bitartez bereziki.

Hezkuntzaren alorrean, baina beste *norabide* batean (ikasle etorkinen guraso, tutoreekin hartu-emanak izateko eta eskola-ordezkaritzako organoetan parte hartzeko dioenarekin) honako hauek proposatzen dira:

- Euskal Hezkuntza Sistemari buruzko informazio-gida eleanitza bat landu eta zabaltzea, eta bereziki, guraso tutore eta abarrek eskola-ordezkaritzako organoetan behar duten parte-hartzea azpimarratzea.
- Etorkinen elkarteetan eta ikasleen guraso-elkarteetan arteko topaketak antolatzea.

Bestetik, ikastetxeetan atzerriko etorkinei euskara-gaztelania irakasteko aukera sustatzea dioen norabidean, honako proposamen hau dago:

- Helduen hezkuntzako zentroetara joaten diren ikasle etorkinen artean gure kultur eta hizkuntz errealitateari buruzko ezagutza sendotzea.

Azkenik, elkarren osagarri izango diren esku-hartzeen alorrean, Justizia Sailaren mendeko ikastetxeen curriculumetan euskarari eta euskal kulturari lotutako edukiak sartuko direla esaten da.

Azken hau izan ezik, gainerako proposamenak Hezkuntza Sailak eta Kultura Sailak bideratutakoak dira gehienbat, Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzak, Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak eta HABEK.

### **Immigrazioaren Euskal Planaren ildotik Kultura Sailak abian jarritako ekimenak**

BAT Soziolinguistika aldizkariak (2004ko iraileko aleak) jasotzen duenez, Sail honek EBPNren ildotik, "euskara etorkinen artean transmititzea bermatu nahi du". Hala bada, ahalik eta etorkin gehien euskalduntzeko gogoz, hainbat ekimen jarri ditu abian:

- AISA proiektua: HABEk, etorkinak euskara ikasteko material bereziak sortu (horien artean irudi bidezko hiztegi eleanitz bat) eta etorkinei zuzendutako 60 h-ko ikastaro bereziak antolatu ditu, etorkinek euskaraz oinarrizko maila lortu eta euskaltegien sarean sartu ahal izateko. Finantzaketa Kultura Sailak eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak hartu duten erdibana. Harrera ikastaro hauek, hasieran behintzat, zazpi udalerritan eskaintzekoak ziren: Bilbo, Barakaldo, Ondarroa, Ermua, Donostia, Irun eta Gasteiz. Horiek ziren, ez bakarrik 2005ean etorkin gehien biltzen dituzten udalerriak, baita immigrazioa lantzeko teknikari berezia dutenak ere.

AISaren ildotik, etorkinentzat berariaz prestatutako modulua ez bada ere, hizkuntza premiak asetzeko, Ostalaritza 1 Tabernan eta Ostalaritza 2 Jatetxean gidak aurkeztu zituen HABEk. Bosna orduko 20 unitate dituzte denera bi liburuxkek, eta tutore batekin nahiz bakarka erabil daitezke. Liburuxka batean tabernetako jardunean ohiko diren egoerak eta hiztegia lantzen dira. Bestean, jatetxeetako jarduna da ardatza. Erraz ulertzeko moduan daude emanda azalpen guztiak, eta adibide askorekin. Euskarari buruzko azalpenak emateaz gain, euskal kultura eta ohiturei buruzko zertzeladak ere eskaintzen zaizkie ikasleei: pintxoak, koadrilak, herrietako festak... Ostalaritza dute lanbide etorkinetako askok.

- 2005eko Euskalgintza deialdian, 70.000 € banatu ziren euskara eta etorkinak uztartzen dituzten egitasmoak laguntzeko (Euskara etorkinei hurreratzeko egitasmoak, euskara etorkinen artean transmititzera bideratutako ekintza eta egitasmoak, eta etorkinak harreman-sare euskaldunetara erakartzeko egitasmoak laguntzeko hain zuzen).

Eskatzailea / entidad solicitante	Egitasmoa / Proyecto	Puntuazioa Puntu	Diru-laguntza Subvención
Huheri, S. Coop.	Haur etorkinak eta euskara ikas/irakasleentzako	66,55	8.081
Urtziarra Eskola, Gipuzkoa	Jolasen mundua egitasmoa	72,12	2.632
Elkin Emakumeak AED Elkarte	Emakume etorkinentzako oinarriko formazio modulua	75,99	2.131
Zutahir, Nazioarteko Elkartasun eta Lankidetzaz, GGIKE	Etorkinen ahotsa' Voces del mundo	70,09	17.276
Asociación Txarxilpuedi	Munduko jolasak	68,69	4.101
Asociación Cultural Jesús María De Leizola Kultur Elkarte	Batu egitasmoa	65,71	12.612
Urtarrin Kultur Taldea	Irakasleen prestaketa etorkinei begira	66,23	432
Urtarrin Kultur Taldea	Etorkinak eta euskara materialgintza	66,49	2.980
Topagunea Euskara Elkarten Federazioa	Gurean murgilduz	77,00	5.442
Asociación Cear-Euzkadi & Comisión de Ayuda al Refugiado en Euzkadi de Bilbao	Euskararen erabilera eta euskal hezkuntza ereduaren etorkinen seme-alaben integrazioaren sustapena. Bigarren fasea	70,02	12.053
Azraf	20055 urte berri Amazigha ospatzeko proiektua	69,55	2.260

- Euskararen Nazioarteko Egunean, abenduaren 3an, etorkinei tarte bat eskaini izan zaie 2003ko saioaz geroztik.
- Euskararen aldeko sentsibilizatorako sortzen diren ekintza, egitasmo eta produktuen azterketa egin, etorkinentzako egokitzapepenen bat egin beharko ote litzatekeen edo ez erabakitzeko; hala balitz, produktu aproposak egin.
- Talde birtual bat antolatu da AISA Proiektuko (batez ere) harrera-ikastaroetako irakasleei laguntza emateko.
- Lan-saio bat antolatzeko egitasmoa etorkinen elkarteekin, kulturen arteko informazio trukaketa eta aurrerantzerako ekintza-bideak markatzeko.

Hutsuneei dagokienez, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren iritziz, zerrendak luze jotzen badu ere, batik bat, sentsibilizazio, informazio eta formazioa alorretan daude hutsunerik handienak. Honako hauek aipatzen zituen:

- Sentsibilizazio alorra bertokoekin eta etorkinekin landu behar dela diote, aniztasunak dakarren aberastasunaz denik jabetu, eta besteak beste, etorkinek euskararenganako jarrera baikorra izatea lortuz, euskara ikastera animatzeko.
- Informazioari dagokionez, bertokoei, etorkinen kulturaren eta hizkuntzen inguruan hitz egin behar zaie; eta etorkinei euskararen gainean, euskara biziberritzeko egin diren ekimenak, euskara ezagutzearen abantailak, euskararen transmisioa etorkinen artean (hezkuntza ereduak, haurrek euskara ikastearen abantailak, helduek euskara ikasteko dituzten aukerak...). (Horren ildotik *Etorkinen Ahotsa* izeneko aldizkaria diruz laguntzen da).
- Eta bukatzeko, formazioari begira, euskal irakaslekoa etorkinei euskara irakasteko prestatu, oinarritzko ezagutza bermatuko duen euskara ikasteko programa kurrikular bereziak sortu, material didaktiko berriak sortu, ikastaro-eskaintza edota laguntza linguistiko egokiak diseinatu (adina kontuan izanda, trinkotasun-maila, denbora partzial zein osokoa, ama-hizkuntza kontuan izanda, etab.) eta zabalkunde egokia egin, euskara ikasteko interesa sustatuko duen laguntza sistema erabili, etab. egin beharko litzatekeela deritzote.

Hauxe beraz, EAEko hizkuntza-politikaren ardura duen organoak egiten duen balorazioa.

**Immigrazio Planaren ildotik Etxebizitza eta Gizarte Gaien Sailak abian jarritako beste zenbait ekimen, biziberritzeko saiotarako ere baliagarri izan litezkeenak:**

- ✓ **IKUSPEGI Immigrazioaren Euskal Behatokia:**  
Immigrazio Zuzendaritzak eta Euskal Herriko Unibertsitateak lankidetzaz hitzarmen bidez sortua da. Ikerketa-tresna berria da immigrazio-fluxuek gure Erkidegoan duten eragina ezagutu, aztertu eta baloratu ahal izateko, bai eta ikerketak eta prestakuntza-ikastaroak gauzatzeko.
- ✓ **Integrazio Sozialerako FOROA:**  
Gizarte-eragileen, gizarte-erakunde eta erakunde humanitarioen, sindikatuen, enpresaburuaren eta Erakunde eta Herri Administrazioen arteko gogoeta eta koordinaziorako gunea da. Hona hemen ekimen hau taxutzen duen araubidea:
  - 200/2002 Dekretua abuztuaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako.
  - Agindua, 2003ko apirilaren 30koa Gizarte Gaietako sailburuarena, herritar etorkinen integrazio eta partaidetzarako Foroko organoen funtzionamendu-araudiaren argitalpena agindu eta Lan Batzordeetan sartzeko epea zabaltzen duena.
- ✓ **Biltzen Programa:**  
Kultur arteko Bitartekotza eta Hezkuntzarako Ekimen Komunitarioak Koordinatzeko Zentroa abian da Deustun. Beren hitzetan, zerbitzu horren xedea da euskal gizartean dauden kultur komunitateen arteko elkarriketa bizkortzea; baita, kultur komunitate horien eta Administrazioaren arteko harremana ere. Hain zuzen ere,

zerbitzu publiko eta pribatuei beraien lanerako aholkua eman diezaikeen zentroa egin nahi da —kultur arteko bitartekotza eta hezkuntzaren eremuan—, alor horretako gatazkak kudeatu eta eraldatzeko prozesuak errazteko gauza izango dena, eta pertsona ororen gizarte-integrazio osoa errazteko gai, aniztasuna errespetatuz, betiere.

Ilido beretik kulturartekotasuna sendotzeko dirulaguntza-agindua kaleratu zuen Etxebizitza eta Gizarte gaietako Sailak 2005eko urtarrilaren 27an: EAEn elkarrekin bizi diren jatorri ezberdinetako kulturen eta pertsonen arteko harremanak bultzatzea, laguntzea, ezagutzea eta berdintasunean baloratzea; herritarren prestakuntza eta sentsibilizazioa, immigrazioaren zergatiak zeintzuk diren azalduz eta pertsona guztiek eskubide, betebeharrak eta aukera berdinak izan behar dituztela adieraziz, pertsona horien jatorria, etnia, kultura, erlijioa, sexua edo hizkuntza edozein izanik ere; eta elkartasunaren, aniztasunaren, parte-hartzearen, elkarbizitzaren eta desberdintasunean egokitzearen balioak sustatzea. Horretarako 360.000 € bideratu ziren. Eraitzen berri ez dugu.

✓ Udal-mailako harrera-sare publikoa

Immigrazio Zuzendaritzaren beste ardatzetako bat da etorkinei harrera eskaintzeko udal-mailako sarea sortzea, udalen immigrazio-alorreko esku hartzea nolabait taxutzeko, herritarrengandik hurbilen dagoen administrazioa den neurrian.

Sare hori, era berean, bi programen bidez sendotu nahi da:

1. Prestakuntza programaren bidez, etorkinekin harremanetan diharduten gizarte-langileei immigrazio gaietan trebatzeko. Horretarako landu zen *Etorkinei Orientabidea Emateko Gida*, 2003an.

Aurkibidea hauxe da:

- a. Sarrera
- b. Informazio Juridikoa
- c. Erroldatzea
- d. Dokumentazioa
- e. Etxebizitza
- f. Gizarte Zerbitzuak
- g. Lan Munduan sartzea
- h. Heziketa
- i. Osasun laguntza
- j. Partaidetza soziopolitikoak
- k. Kolektibo bereziak

Eranskina:

Gaiari lotutako kontzeptuen glosategia  
Zerbitzuen direktorioa

Heziketari dagokion atalean ematen den informazioa: eskola-organoak, tituluen homologazioa eta baliozkotzea, alfabetatze eskolak eta pertsona helduei zuzenduriko ikastaroak.

Irakaskuntzan ez da erduei buruzko aipamenik egiten.

Euskarari dagokionez egiten den aipamen bakarra honakoa da:

*“(…) hizkuntzak ikasteko (gaztelania eta euskara) edo alfabetatzeko aukera eskaintzen du, harik eta Bigarren*

*Hezkuntzako Graduatua edota bestelako heziketa-programak lortu arte”.*

2. HELDU programa da udal-sare horretan gauzatzeko bigarren programa: EAEko atzerritar etorkinen arreta juridiko-sozialeko sarea sortzea du helburu, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoekin elkarlanean. Zerbitzu honen helburua da oinarrizko gizarte-zerbitzuekin lankidetzan aritzea, atzerriko etorkinei aholku eman eta laguntzeko. Doan egiten ditu izapideak egoitza-baimenak, edo egoitza- eta lan-baimenak lortze aldera. Era berean, aurreko programari loturik, zerbitzu honek aholkua ematen die oinarrizko gizarte-zerbitzuetako profesionali Atzerriartasunari buruzko Lege Organikoak legeria orokorrean duen eragin bereziaz, profesional horiek baldintza berberetan arreta egin ahal diezaieten zerbitzu eske joaten zaizkien atzerriko etorkinei.

Hau guztia gauzatzeko Immigrazio Zuzendaritzak ekainaren 25eko 155/2002 Dekretua kaleratu zuen, eman beharreko laguntzen oinarrizko ildoak ezartzeko. Ildoetako batek toki-erakundeak zituen helburu, udal-mailan **etorkinentzako harrera-sarea sortzea** bultzatzen, **gizarte zerbitzuen baitan**.

Era berean, immigrazioak udalean duen egoerari buruzko azterketa eta diagnostikoa egitea ere sustatu nahi zen, **Immigrazioko Toki Plana** lantzeaz gain, udalak garatuko dituen neurri eta ekintzak ezartzeko; hori guztia Immigrazioaren Euskal Behatoki Iraunkorarekin eta Immigrazioari buruzko Euskal Planarekin koordinatuta.

Dekretu horrek bestelako ekimenak ere laguntzen zituen, honako hauek besteak beste:

- Alor honetan programak garatzen dituzten irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuen funtzionamendurako laguntza-ildoak.
- Irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuetan etorkinen parte-hartzea bultzatu eta indartzeko laguntza-ildoak. Immigranteen asoziazionismoa.
- Gizarteratzeko prozesuan laguntzarik ez duten gazte atzerritarrei arreta eskaintzeko laguntza-ildoak

2005eko maiatzean Immigrazioko Toki Plana egina zuten erakundeak honako hauek ziren:

ARABA
Vitoria-Gasteizko Udala Españako plaza,1 - 01005 Vitoria-Gasteiz (Araba) Tfno. 945 16 11 00 - Fax: 945 23 27 97 <a href="http://www.vitoria-gasteiz.org">www.vitoria-gasteiz.org</a>
BIZKAIA
Bilboko Udala Gran Vía nº4-2º - 48001 Bilbo (Bizkaia) <a href="http://www.bilbao.net">www.bilbao.net</a>
Mungialdeko Gizarte Zerbitzuetako Partzuergoa Aita Elorriaga,4 - 48100 Mungia (Bizkaia) Tfno. 94 615 55 51 // 94 615 55 64

Fax: 94 674 24 54
Ernuako Udala Marques de Valdespina, s/n - 48260 Ermua (Bizkaia)
Lea Artibaiko Amankomunazgoa Patrokua Jauregia – Xemeingo Etorbidea,13 - 48270 Markina – Xemein (Bizkaia) www.lea-artibai.org mankomunitatea@lea-artibai.org
Busturialdeko Gizarte Zerbitzuetarako Elkargoa Maloste,2 - 48300 Gernika-Lumo (Bizkaia) Tfno. 94 625 51 22 // 94 625 51 23 Fax: 94 625 64 70
Barakaldoko Udala Herriko Plaza,1 - 48901 Barakaldo (Bizkaia) Tfno. 94 478 91 90 Fax: 94 478 91 99 www.barakaldo.org ayuntamiento@barakaldo.org
Getxoko Udala Martikoena,16 - 48992 Getxo ( Bizkaia) Tfno. 94 466 01 30 Fax. 94 466 01 33 www.getxo.net gizartez@getxo.net
GIPUZKOA
Donostiako Udala Urdaneta,13 -20006 Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa) Tfno. 943 48 14 00 Fax: 943 48 14 14 www.donostia.org
Pasaiaiko Udala San Juan,118 -2011 0 Pasaia (Gipuzkoa) Tfno. 943 34 40 34 // 943 34 41 32 Fax: 943 51 54 47 www.paisvasco.com/pasaia
Irungo Udala Urdanibia plaza -20304 Irun (Gipuzkoa) Tfno. 943 64 92 96 Fax: 943 64 94 17 www.irun.org saludsociales@irun.org
Eibarko Udala Plaza Unzaga, s/n -20600 Eibar (Gipuzkoa) Tfno. 943/ 20 68 45 // 943/ 20 15 25 Fax: 943 70 07 11 // 943 20 09 68

Aurreko dekretua sendotzera etorri zen 200/2003 Dekretua, 2003ko irailaren 2koa, atzerriko etorkinentzako udal-mailako harrera-sarea finkatzeko Toki Erakundeentzako

laguntzei buruzkoa. Dekretu honetan zerrendatzen dira immigrazio-teknikari hauen funtzioak, besteak beste:

- Gizareratze-ibilbidean esku hartzen duten beste profesional eta/edo erakunde publiko edo pribatu batzuekin koordinatzea.
- Immigrazioko Toki Plana gauzatzea.
- Udalak immigrazio-arloan egindako jarduerak eta programak ikuskatzea.
- Udal-arloei Udalaren jarduera eta programen plangintzari lotutako aholkularitza eskaintzea.



## HEZKUNTZAREN ALORRA

Hezkuntza-komunitateak orokorrean abian dituen ekimenez arituko gara hurrengo orriotan. Esan beharra dago gehien landu den alorra gurean hezkuntzarena dela, bertan egin dira eztabaida eta esperientziarik berrienak, bai hurrekin, bai helduekin ere.

Hasteko, eta egindakoak azaldu aurretik, ikus dezagun lehenik datuak, numeroak zertan diren:

Kontu jakina da etorkinen eboluzioa nabarmena izan dela Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hezkuntza sisteman: 95-96 ikasturtean 2.000 ziren kanpotik etorritako ikasleak; ia hamar urte igaro eta gero, kopurua halako bost hazi da.

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren 2005eko urtarrileko datuen arabera, gaur **egun 10.560 ikasle etorkin** ari dira Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hezkuntza sisteman ikasten, horietako erdiak baino gehiago (%53) Bizkaian.
- Ikasleria osoaren **%3,14 dira** kanpotik etorritako neska-mutikoak. Azken lau urteotan nabarmen hazi da ikasle etorkinek ikasleria osoan duten pisua, orain lau urte ikasleriaren %0,95 zirelako.
- Ikas-ereuari dagokionez, kanpotik etorritako ikasleen % 51 A ereduan matrikulatu dira, %27 B ereduan eta %20,8 D ereduan
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2005ean zioenez, ikasturte bakoitzean haur etorkinak % 40 igotzea aurreikusten zuen, eta **2010. urtean 72.000 ggb.** izatea (Iragarpen horien aldean EUSTATEk 2015erako egin proiektzioa gogoratu, atzerriko immigrazioa jaitea aurreikusten duena).

Dena den, herrialdeka alde nabarmenak daude:

- ✓ Araban ikasle etorkinen %78k ikasten dute A ereduan eta %4,4k bakarrik D ereduan.
- ✓ Bizkaian ikasle etorkinen %18k bakarrik ikasten du D ereduan eta %58k A ereduan.
- ✓ Orekarik handiena Gipuzkoan dago, eta A eredua nagusi ez den herrialde bakarra da. Ikasleen %36k ikasten du Gipuzkoan D ereduan eta %18,7k A ereduan. B eredu elebiduna da nagusi Gipuzkoan; ikasleen ia erdiak (%44,6) ari dira bertan

ikasten.

## IKASLE ETORKINEN ESKOLARATZEA EAE-N

### EAEko ikasleekiko portzentaia




### HERRIALDEKA



IBARRA, ULKORRUMIARRA

### Sistemaren arabera (2005eko urtarita)

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Publikoa	1.700 (%81)	4.090 (%72)	1.508 (%54)	7.298 (%69)
Itunpekoa	391 (%19)	1.583 (%28)	1.288 (%46)	3.262 (%31)
Guztira	2.091	5.673	2.796	10.560



### Hizkuntz ereduaren arabera (2005eko urtarita)

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
A eredua	1.629 (%78)	3.321 (%58,5)	522 (%18,7)	5.472 (%51,6)
B eredua	371 (%17,6)	1.315 (%23,2)	1.246 (%44,6)	2.932 (%27,6)
D eredua	91 (%4,4)	1.037 (%18,3)	1.028 (%36,7)	2.156 (%20,8)
Guztira	2.091	5.673	2.796	10.560

IApstezia

Jatorriari dagokionez, eta datu kuantitatibo orokorretan esandakoa errepikatuz, 2004an neska-mutiko atzerritar gehienek (%69) Hego Amerikan zuten jatorria, gehienek Ekuador eta Kolonbian. Gainerakoak afrikarrak ziren (%15), asiarrak (%18,5) eta Europako Batasunean sortutakoak (%10).

Etorkinen banaketa ez da homogenoa, aitzitik kontzentrazioa handia dago zentro, sare eta eredu jakinetan. Etorkin horiek 70 zentrotan ikasten dute gutxi gorabehera, alegia zentro guztien %9an alegia. Ikastetxe hauek baliabide eskasak dituztenak izan ohi dira, gune marginaletakoak.

## Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (HUIS)

HUISen arabera, etorkina, beste hezkuntza-sistema batetik datorren ikaslea da.

Etorkinen integrazioan ere, beste askotan bezalaxe, giltzarri da eskolak bete dezakeen funtzioa, etorkinaren familiaren eta gizartearen arteko aurrenetako lotunea bat izango baita.

Felix Etxeberriaren hitzetan (BAT aldizkaria 52. zk.) hezkuntza-politikaren arduradunek plazaratuak dituzte gai honen inguruan oinarritzko erabakiak, dokumentazioa eta orientabideak.

- Oinarrien artean gisa, 1998an argitaratutako liburua *Kulturarteko Hezkuntza* (Jaussi M.L.) aipatzen du.
- 2003ko irailean ateratako zirkularrean epez kanpo matrikulatutako etorkinekin aplikatu beharreko irizpideak aipatzen ziren, honako hauek hain zuzen:

1.- Fondo publikoekin mantendutako ikastetxe guztien (publikoen nahiz itunpekoen) arteko oreka mantentzen saiatu behar da.

Errealitatean, ordea, kontrakoa gertatu da: azken urteotan etorkinen %75 inguru ikastetxe publikoetan eskolatu izan da.

Etorkinen banaketa ez da homogenoa, eta kontzentrazioa handia dago zentro, sare eta eredu jakinetan. Etorkin horiek 70 zentrotan ikasten dute gutxi gorabehera, zentro guztien %9an alegia.

Etorkin-kontzentrazio handia dutenei *kontzentrazio eskola* ere deitzen omen. Hezkuntza Sailak sortu zituen, epez kanpo eskolatzen ziren atzerriko gazteak hartzeko. Immigrazio eremu garrantzitsuetan geratzen dira halako zentroak; ikastetxe hauek baliabide eskasak dituztenak izan ohi dira, gune marginaletakoak eta ghetto bihurtzeko arriskua dutenak, Bilbo adibide: Otxarkoagan eta San Frantziskon, inguru horietan bizi direnentzat. Eta, hortik kanpo, Cervantes eskola Deustu eta Zabalgunean bizi diren umeentzat, eta Mujikakoa gainerakoentzat.

A ereduari eusten diote.

Euskal ereduetara hurbiltzeko ahalegina San Frantzisko auzoan egin da. Palanka taldea; San Frantziskoko euskara taldearen eskutik. Eskolaurrea euskaraz dagoen arren umeentzako B edo D eredu nahi dutenek auzotik kanpo egitera behartuta omen daude. Aurrematrikulazioari begira, kanpaina berezia egin dute Miribillako eskolan euskarazko gela irekitzeko 2005-06 ikasturtean. Zazpi ume lortu dituzte. Etorkinen seme-alabak gehienak: «Geuk lortu ditugu guztiak, banan-banan, ez eskolako arduradunen, ez Hezkuntza agintarien aldetik ez baitugu laguntzarik izan».

Joera horren salbuespena oro har Gipuzkoan ematen omen: arrazoia, berriz, azken lurralde honetako matrikulazio-batzordeen funtzionamenduan egon daiteke, izan ere, batzordeok eskabideak bideratzeko ardura dute eta sare bien arteko banaketan halako oreka bat bilatzen dute.

## 2.- Nagusi diren eredu bidez (B eta D) etorkinak hizkuntza-normalizazioaren prozesuan integratzea bultzatu behar da.

Jarraibide honek epez kanpo heltzen ziren neska-mutil atzerritarrak B eta D ereduetan sartzea gomendatzen zuen.

A eredu horrela baztertea Espainiako legeak urratzea dela ebatzi zuten Auzitegi Nagusiko epaileek, «Euskal Hezkuntza Sistema Espainiakoaren osagarri» dela esanez. **Ondorioz indarririk gabe utzi zituen jarraibidea, 2005eko udaberrian.**

Gaur egun atzeritar jatorriko ikasleak Gipuzkoan bakarrik matrikulatzen dira kopuru esanguratsuan B eta D ereduetan. Ikasle etorkinak A ereduaren eskolatzen dira gehientsuenak (erkidegoko ikasleak, berriz, %10 baino ez)

Eta hori zergatik? Ikasle etorkinen gurasoek A ereduaren alde egiteko hainbat arrazoi aipatu dituzte adituek:

- Aldagai asko sartzen dira: jaso duten informazioa nolakoa den, inguruan dituzten ikastetxeen izaera... Eredu baten edo bestearen arteko hautua gurasoen esku geratzen da. Hezkuntza Sailak hezkuntza sistemaren egiturari eta ereduari buruzko informazioa ematen du.
- Hain zuzen, informazio egokiaren falta nabaritzen dute guraso etorkinek. AZRAF EAeko Marokoarren Elkarteak *Berrian* dienez, Euskal Herrira etorri berri diren guraso askok etorkinen elkarteetara

jotzen dute laguntza eske. «Beraientzat errazena delako edo informaziorik ez dutelako, umeak A ereduari sartzeko gomendatzen diete. Guraso askok ere ez dute hezkuntzan interes handirik, eta esaten diete egiten dute, beste barik. Guk D ereduaren alde egiteko eskatzen diegu gurasoei, hezkuntza sistemaren eta Euskal Herriaren errealitatea den modukoa delako eta etorkizunean euskara gero eta garrantzitsuagoa izango delako. Bigarren mailako herritarrak izaten ez jarraitzeko, beharrezkoa da haurrak D ereduari sartzea».

- Gurasoen interes faltaz gainera, zenbait ikastetxek ere «errazenera» jotzen dutela salatu du: «Haurra nagusitoxa denean, 12 urte inguru dituenean, A ereduari sartzen dute, eta, gainera, euskara ikasgaia gaindituta dutela esaten diote, eta ez da euskara eskolara joaten».
- Txinako etorkinek ere A ereduaren alde egiten dutela esan du Pedro Li Euskal Herriko Txinatarren Elkartearen presidentek. «Beste aukerarik ez dagoenean bakarrik sartzen dituzte haurrak D ereduari. Kontuan izan behar da beraientzat nahiko lan dela gaztelania ikastea».
- Sakoneko arazoa, dena den, informazio eza da. Askotan entzun izan da jatorria Hego Amerikan duten herritarrentzat A ereduari aukeratzea zentzuzkoena dela. Errealitateak, baina, besterik erakusten du: «Ikasketak dituzten gurasoek, eta ez dira gutxi, euskarazko ereduari alde egiten dute; eta gainerakoetan, askoren ama hizkuntza ez da gaztelania».

3.- HUISen hirugarren jarraibidean ikasle etorkinekin egin beharreko diagnostikoa ezartzen da, eta estrategiak nahiz baliabideak aztertzen, haiek integratzeko asmoz betiere.

2003ko jarraibideez geroztik, eta Félix Etxebarriaren hitzekin jarraituta, Sailak beste hiru dokumentu nagusi plazaratu ditu 2004an.

A.- Euskal Hezkuntza Sistema: Liburuxka honetan familiei ezagupena erraztearren, bederatzi hizkuntzatan Euskal Hezkuntza Sistemaren ezaugarri nagusiak bildu dira. Hezkuntza-ereduak, horien ezaugarriak, eta eskolatan duten proportzioa jakinarazten dira.

B.- Ikasle etorkinak artatzeko programa. Etorkinak eskolatzeko erabili beharreko irizpideak jasotzen dira:

- Integrazioa: Eskola-integrazioaren bitartez, gizarte-integrazioa eta -kohesioa iritsi nahi dira. Horretarako berdintasuna eta dibertsitatearen defentsa egiten da.
- Berdintasuna: Kulturarteko hezkuntzak, talde nagusiak eta gutxiengoak berdindatu behar direla esan nahi du. Eskolak denen arrakasta bultzatu behar du, etorkinena ere bai, gutxiengo kulturak ezagutzea eta elkarriketara jartzea, jarrera baztertzailak gainditzea, eta kultura arteko gatazkak elkarriketaren bidez konpontzea.
- Interkulturalitatea: Kulturarteko hezkuntzak kultura ezberdinen arteko elkarriketa, errespetu eta errekonozimendua bultzatu behar ditu. Horretarako gutxiengo kulturaren zenbait eduki, jarduerak eta presentzia curriculumean sartu behar dira

- Kalitatea: Helburu hauek denentzako dira, inor baztertu gabe, eta ikasle guztien eskola eta gizarte-garapenaren alde.
- Ikasle etorkinen gurasoei informazio egokia ematearen garrantzia asko nabarmentzen da. Kanpotik etorri den ikaslea EAEko hezkuntza sistemara eta gizartera ahalik eta azkarren egokitzeko helburua du programak, beraien jatorria inoiz ahaztu barik. «Horregatik, hizkuntzak, euskarak garrantzi nabarmena dauka gure jardueratan».
- Programak laguntza bereziak eskaintzen dizkie ikastetxeei. Ikasturtea hasi baino lehen, ikastetxe bakoitzak bere hizkuntza plana zehazten du, eta Hezkuntza Sailera bidali. Jasotako hizkuntza planak aztertu eta gero, ikastetxe bakoitzak behar duen laguntza zehazten du Jaurlaritzak. Hala, 2004-05 ikasturtean 120 irakasle aritu dira Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxeetan ikasle etorkinei laguntzen. Gainera, kontzertatutako 80 ikastetxek diru laguntza bereziak jaso dituzte beren hizkuntza planak garatu ahal izateko. «Irakasle gehienak ikasgelan bertan izaten dira. Ikasle etorkinek lehenbailehen gutxienezko hizkuntza maila lortzen laguntzea da irakasle horien helburua». Hizkuntza irakastearekin batera Euskal Herriko errealitatea eta kultura ere ikasten dituzte. «Ikasle etorkinek ikasturte eta erdi baten gutxi gorabehera hizkuntzaren gutxienezko ezagutzak lortzen dituzte».

C.- Harrera-planak egiteko orientabideak: gai nagusia da nola hartu eta antolatu eskola etorkin berriekin sortzen ari den egoera honetara. Lantzen diren alorrak asko dira, eta hizkuntzari dagokionez, F. Etxeberriak honako hauek nabarmentzen ditu:

- Hasierako ebaluaketa egiterakoan, batetik, familiako hizkuntzan, eta bestetik, euskaraz eta gaztelaniaz duen gaitasunaren informazioa jasoko da.
- Banakako informazio-planean sustatu behar diren helburu eta ikaskuntzak zehaztu behar dira, eta horiek zein hizkuntzatan egingo diren.

Hiru dokumentu hauez gain, bestelako neurriak ere abian jarri dira: besteak beste, hizkuntzan indartzeko programak sustatzeko dirulaguntzak kaleratzen ari da HUIS. Horien bidez, 63 ikastetxek dirulaguntza jaso dute. Ikastetxe horiek 32 udaletan kokatuta daude. Irakasle horiek eskolako orduen zati bat etorkinekin pasatzen dute. Haur etorkina gainerako ikasleekin batera, tutorearekin eta indartzeko irakaslearekin egoten da ikasgelan. Eskolek dirulaguntza gehienez ere bi urtez jaso dezaketa.

Etorkinen eskolatzea egunetik egunera indartzen ari den gertakaria da eta sortzen den egoera berriari aurre egin ahal izateko nahikoa baliabide pertsonalak, funtzionalak eta materialak izan ezean, baikorki eta erronka pedagogiko gisa hartu beharreko proiektua, konponbide zaileko arazo bihur litekeela esaten da; pedagogian egin ohi denaren ildotik, programak, irakasleen formazioa eta baliabideak landu beharra dago: programak sortu, testuak prestatu, irakasle berriak izendatu eta lehendik daudenak formatu behar; hutsunerik handienak formazioan, giza baliabideetan eta materialetan daudela diote.

Informazioa zuzenean eskuratzeko, [http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/eu/contenidos/informacion/dif8/eu\\_2083/f8\\_e.html](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/eu/contenidos/informacion/dif8/eu_2083/f8_e.html)

## Lankidetzazko ekimenak: HUIS eta Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluaren arteko hitzarmena

Beste ekimen batek 2005eko martxoan bideratutakoa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Kontseilua izan ditu eragile, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ikastetxeetan dauden 10.600 immigrante berrien seme-alabak «euskarara hurbiltzeko,» gazteok murgiltze ereduetara erakartzeko akordioa sinatu dute-eta. Ez da hau lehen ekimena, Hizkuntza Eskubideak Hezkuntzan Jardunaldiak ere antolatuak zituzten aurretik Behatokiarekin elkarlanean.

Hitzarmenaren xedea ume eta gazte horiek guztiak etorkizunean «euskal herritar eleaniztunak» izatea omen. Akordioa urtebete egongo da indarrean eta haien arabera, jarduteko lerro bi izango ditu:

- «Helduen Hezkuntzako Ikastetxeetako (HHI) irakasleak euskararen eta euskal kulturako gaietan trebatzea», batetik, beraiek direlako Hezkuntza sarearen barruan neska-mutiko hauen gurasoekin harreman zuzena dutenak.
- Horrekin batera, ikasle atzerritarrek euskara ikasteko duten materiala aztertu egingo dute eta, behar izanez gero, euren beharizan eta premien neurria moldatutako eskola-liburu berriak sortuko dituztela adierazi dute.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2005eko udaberrian etorkinentzako plan berezi bat sortzeko asmoa duela plazaratu zuen.

## Berritzeguneak: irakasleen prestakuntza

Hezkuntza Sailak egindako lanaren parte bat Berritzeguneetatik bideratua izan da, Durangokoa izan da Kulturarteko Hezkuntza lantzen nabarmendu den horietako bat:

Durangoko Berritzeguneak aurkezten duen materialak irakasleei eta Berritzeguneetako aholkulariei tresna baliagarri bat eskaintzea du helburu, oinarrizko tresna izan nahi du irakasleen prestakuntza planifikatzeko orduan: lehen gogoetak sortarazi beharra dago, kulturarteko hezkuntzaren ildotik, ikastetxeetan -eta gizartean oro har- egoera kulturantzaren aurrean. Behar-beharrezko ikusten dute etorkinak eskolatzekoan, oinarrizko planteamenduak zehazten eta hartu beharreko erabakiak hartzen lagunduko duten tresnak lantzea.

Hainbat atal jorratu dira: sentsibilizazioa, harrera eta lehen egunak, hasierako ebaluazioa, hurbilketarako estrategiak, hizkuntz trataera, bizikidetzeta... Kulturarteko unitate didaktiko bat ere eskaintzen da adibide gisa, bibliografia, web orri eta helbide interesgarriak... Bestalde, Durangoko Berritzegunean biltzen den irakasle-mintegian azken hiru ikasturteetan egindako materialak ere eskaintzen dira eranskin modura.

Modulu honetan Durangoko Berritzegunean azken urteotan solte landu diren zenbait gai eta ekimen bildu nahi izan ditugu. Prestakuntza-modulu hau erabat irekia dago, praktikan ipini ahala, moldaketak eta iradokizunak jasotzeko.

- 1.- Sarrera: zer da kulturarteko hezkuntza?
- 2.- Sentsibilizazio jarduerak
- 3.- Etorkinen seme-alaben Harrera

- 4.- Hasierako ebaluazioa (gaztelaniaz).
- 5.- Hacia una Convivencia Intercultural
- 6.- Hizkuntz Tratuera etorkinen seme-alabekin
- 8.- Bibliografia
- 9.- Web Orri Interesgarriak

Berritzeguneen lanaz gain, hainbat irakasle-taldetan egindako esperientzia eta inizatiba berriak daude, integrazioa, kulturen arteko heziketa eta elkarbizitza helburu, Trintxerpeko Karmengo Amak bideratutako Kultura Portugesaren programa kasu.

## **GURASOEN ELKARTEAK**

Aipagarria da bestalde, Guraso Elkarten Konfederazioa burutzen ari den lana (BIGE BAIKARA eta DENON ESKOLA) integrazio linguistiko eta kulturala errazteko. Eskola-ordutegitik kanpo euskara-errefortzuak eskaini dizkiete, baita jolasak, eskulanak, kirolak, modu ludikoan betiere, bertakoei nahiz etorkinei. Beraiek antolatuta, atzerriko umeei euskara irakasteko material erabilgarri buruzko topaketa egin dute: ikasle etorkinei euskara irakasteko proiektu eta ikasmaterialgintza ulergarri eta erabilgarri guztia ezagutarazteko topaketak. Kataluniako adituak ekarri dituzte, han egiten dabiltzana erakutsi eta Europako Batasunetik datorren Jaling izeneko proiektuaren berri emateko. Izan ere, katalanek ezaguna dute dagoeneko haur guztiengan kultura eta hizkuntza aniztasunaren inguruan jarrera, jakintza eta gaitasun positiboak sortzeko egindako proiektu hori. EAEn, hori guztia euskaratzen dabilta une honetan Eusko Jaurlaritzaren eskutik.

Umeak ez ezik, euren gurasoak ere euskarara ekartzen saiatzen dira aipatutako elkarte biak. Ez da ahaztu behar Helduen Heziketa Iraunkorren doan gaztelania besterik ez dietela irakasten etorkin helduei. Horregatik, BIGEk euskara klaseak antolatu dizkie eskoletan: «Guraso hauei oraindik ematen zaien mezua da Euskal Herrian gizarteratzeko bide bakarra gaztelania dutela, euskarak ez diela aterik irekiko».

Atzerriko langileen bizi-baldintzak ez dira egokienak izaten seme-alaben eskola auzietan konpromisoak hartzeko. BIGEk, horregatik, programa berezia prestatu du eurengana heltzeko. Eskolan gelatik kanpo antolatzen diren jardunaldietan euren umeek parte hartzea garrantzitsua dela ohartarazten diete. Lagun berriak egin eta euskararen murgiltzen hasteko bidea izaten dute.

Euskararenganako hasierako gerturatzea zaila izaten dela aitortzen dute. Beldur dira. Hori bai, duela hogeitazero bertoko gurasoek zituzten zalantza berberak dituzte: «Nik ez badakit, zelan lagunduko diot? Zerbaiterako balio izango al dio?».BIGEkoek diotenez, guraso hauekin lasai hitz egiteko aukera izaten denean, beldur horiek guztiak uxatzen dituzte: «Umeak A ereduan sartu dituztenek ere bi edo hiru urtean euskararen beharraz ohartzen dira».

## **IKASTOLEN ALDETIK (BAT aldizkaria)**

Ez dugu daturik jakiteko zenbat diren ikastolen sarean ikasten ari diren neska-mutiko atzerritarrak. Hala ere, pribatua izateak eta euskarazko irakaskuntza izateak, kopuru txikiak aurrekustera eramaten gaitu.

Ikasle-mota berri honen etorrera dela eta, **Etorkinen Eskolatzea** deritzan Mintegi iraunkorra antolatua dute, 17 ikastolak parte hartu dutelarik. Izaera teoriko-praktikoa du, honezkero bi urte daramatza eta ondoko hauek dira lan-lerro nagusiak:

- 1.- Ikaslea eta familia etorkinaren harrera
- 2.- Ikaslearen egoera akademikoaren aurre-ebaluazioa
- 3.- Ikaslearen kokapena ikasmaita jakin batean.
- 4.-Gelako erantzunaren antolaketa eta hizkuntzaren trataera
- 5.- Familiarekiko harremana

Hausnarketa teorikoei dagokienez, eskolatzeko-prozesuan eragiten duten aldagai nagusien identifikazioan jardun dute, printzipio orientatzaile gisa erabiltzeko gero. Horiek aurkeztu zituen BAT aldizkariaren 52. alean. Hona hemen entresaka labur bat, norabide nagusiak azalduko dituelakoan.

*A.- Jatorrizko hizkuntzaren eta kulturaren maitasunak eta errespetuaren lanketak duen garrantzia:*

*"El bilingüismo aditivo, aquel que suma en vez de restar en la experiencia emocional e intelectual del alumno, parte del reconocimiento, aprecio y valoración positiva de su lengua y de su bagaje cultural. Es preciso potenciar que cultive su primera lengua, como medio de asegurarse un firme apoyo para su aprendizaje de la segunda. Insistir en el desarrollo de las habilidades lingüísticas más amplias en su primera lengua contribuye a la mejora de su autoimagen y a la transferencia de habilidades a su segunda lengua, la lengua que aprende en la escuela."*

Uri Ruiz Bikandi, Miret Bernal (2000)

Gakoa, ordea, komunitate elebidunetan planteatzen da: zein hizkuntza-trataera hautatu behar da ikasle etorkinentzat? Eta eskolatzen berantiarren kasuan hizkuntza horietako bat (gaztelania gure kasuan) maioritarioa denean?

*B.- Familiarekiko harremanaren garrantzia:*

*"El desarrollo académico y lingüístico de los estudiantes es significativamente mayor ven por sí mismos y son vistos por el equipo del centro como coeducadores de sus hijos junto con la escuela. Las escuelas deberían animarlos a la participación, porque los resultados mejoran si los padres perciben la escuela como un medio que les acoge y no les intimida."*

*C.- Hersturaren eragina hizkuntza berrien ikaskuntza prozesuetan. Giro egokiaren beharra.*

Ikastoletako geletan konfiantzan, goxotasunean eta lasaitasunean oinarritutako giroa lantzea helburu.



GITE IPES Institutua-Palanka Kultura Taldea

Gune berezian bizi dira, San Frantziskon, Zabala eta Bilbo Zaharrean. Gutxi izango dira gurean, kanpotik etorritako hainbeste jende biltzen duten auzoak, sozialki eta ekonomikoki baztertuenetakoak. Euskara eskolak antolatu dituzte, Bilboko Udalak diruz laguntzen du ekimena eta Zabaltzen banatzaileak berriz, doan ematen die eskola materiala.

Helburua, hango bizilagunak euskararen eta euskal kulturaren ingurura biltzea. Bultzatzaileek bertako kultura eta euskara hurbiltzeko bidea eskaini nahi izan diete. Jatorri, adin eta kultur desberdintasunen gainetik, bai irakasleak, bai ikasleak, bat datoz eskoletan sortu den giro atsegina azpimarratzerakoan. Ikastaroa etorkinei moldatua eta doan izatea ere beste erakarpen puntu bat da.

Bestalde, eskolan ikasitakoa kalean erabiltzera bultzatzeko ekimen gehiago ere egiten omen. "*Santa Ageda bezperan kantuan atera ginen kalera eta horrelakoetan euskaraz hitz egitera animatu egiten direla ikusten dugu. Horrelako ekintzak zabaldu egin beharko ditugu*". Hainbat kultur adierazpen ezagutarazten zaizkie eta mitologiaren inguruko kontuak ere ikasten dituzte. Horrek berak, euskara ikasteko grina areagotu egiten die, herriaren identitateaz jabetzen direlako. Astean bitan elkartzen dira horretarako, Palanka Kultur elkarteak eta GITE-IPES institutuak antolaturiko ikastaroan.

Kanpotik datozenak, gainera, jakin-minez beterik omen datoz: "*orain hamarkada batzuk zetozenek, Euskal Herria ez zuten herri bezala identifikatzen, zegoen erregimena zegoelako. Gaur egun datozenak, beste konnotazio batekin datoz. Herri desberdina dela somatzen dute, ez dute Espainiarekin lotzen eta horrek jakinmina pizten die*". Gainera, errealitate soziolinguistikoa ere aldatu egin da. Bilbo Zaharrean ez da zaila gaur egun euskara entzutea edo karteletan idatzita ikustea. Bilboko beste auzo batzuetara esportatzeko moduko ekimena iruditzen zaie eta erakunde gehiagoren bultzada izatea ere eskertuko lukete.

Getxora ere zabaldu nahi, baina oraingo honetan irakaslea bera ere etorkina izanik.

Bukatzeko, San Frantzisko auzoa bera eta bertako auzotarren arteko konbibentziaren gorabeherei buruz, zertzelada tiki bat honako lerron bidez.

*Bakarra datorrenean "integratzen" da (hitza komatxo artean jarrita), ez da ezer gertatzen, baina taldea datorrenean... San Frantzisko auzoko adibidea hementxe daukagu (Bilboko Alde Zaharrean egin genuen mahai-ingurua). 1994. urteaz geroztik parte hartu izan dudana betiko auzo elkartekoak immigranteekin bizikidetzeta eta integrazioa, solidaritatea bultzatzearen aldekoak ziren. Galde iezaiezu orain auzo elkartekoei. Ez naiz ari harreman indibidualei buruz, auzo elkarteari buruz baizik, kolektiboari buruz. Orain ere jarrera solidarioa mantentzen du, noski, baina orain bestelako gertaera eta jarrera batzuk gertutik bizitzea egokitu zaio eta ez ditu onartzen. Eta auzokideak zera dio: "Ba ez, nik ez dut nahi horrelako immigrantea. Auzo honetakoa naiz betidanik, auzoa horrela, horrela eta horrela mantendu dugu beti. Arauak baditugu eta zuk etorri eta arau horiek ezin dituzu aldatu nire auzoan".*

K. Amzir, AZRAFeko ordezkaria, in Larrun 1984.alea, *Immigrazioa: Hitzez solidario ekintzaz ez hainbeste*

## **KATALUNIA**

Immigrazioaren datu kuantitatiboak aurkezten ari ginela esaten genuen INEk 2005erako aurreratu datuen arabera Katalunian etorkinak 795.800 direla, hau da, hango populazioaren %11,4.

2001eko zentsuaren arabera, bi urtetik gorako herritarrak 6.215.281 ziren Katalunian, eta horietatik 4.630.640 ziren hitz egiteko gaitasuna zutenak (%74,5), eta ulertzeko ahalmena berriz, %95,5ak.

Esan beharrik ez dago, hortaz, immigrazioarena lehentasun osoko gaia dela hango politika orokorrean.

2005eko uztailan onartuz geroztik, *Pla de la Ciutadania i Immigració 2005-2008* deritzana da hango immigrazio-politika taxutzen duen dokumentua: bost ataletan egituratuta dago:

- 1.-Immigrazioa gaur egun
- 2.-Definizioa
- 3.-Proposamena
- 4.-Departamentuen programak
- 5.-2005eko ekintza-plana

Bigarren atalean, hau da, *Definizio*arenen, badira zenbait pasarte bereziki interesgarri iruditu zaizkigunak, Katalunian gauzatu nahi den politikaren planteamendu zein oinarriak plazaratzen dituztelako, eta EAEn amaitu berria den Planaren aldean, bestelako enfokoa plazaratzen duelako.

Oinarri horietako bat " *Premisse bàsiques de l'acció de govern*" da: bertan plazaratzen diren premisak zazpi dira.

- Lehenegoa. " *Reconeixement de la diversitat cultural da*"
- Laugarrena: " *Assegurar l'estabilitat i la cohesió de la societat catalana*"
- Bosgarrena, berriz, " *Defensa de la llengua i identitat catalanes com les de la ciutadania resident*". Honela dio.

### **5.5. Defensa de la llengua i identitat catalanes com les de la ciutadania resident**

*"Tota política d'igualtat i d'acomodació de la ciutadania resident a Catalunya és una política lingüística. Assegurar la pràctica de la llengua catalana com a vehicle propi de comunicació social, econòmica, política i cultural és un dels objectius bàsics del Govern. A més, la creixent complexitat cultural de la societat catalana (que no és solament fruit de la immigració) comporta una reflexió necessària sobre la identitat nacional. Una identificació amb una nació basada en el fet de compartir elements comuns hauria de ser una concepció compromesa en la defensa de la identitat catalana, una identitat que s'obre, ara, als nous catalans, i es fa, així, més forta, més rica i més plural.*

*L'arribada d'immigrants en societats bilingües posa en evidència les relacions de poder que existeixen en relació amb la llengua. Els immigrants s'acomodena la llengua amb major poder social, econòmic i polític. El fet que molts immigrants utilitzin el castellà és un reflex de les complexes situacions socials que coexisteixen a*

*Catalunya. El coneixement i l'ús de la llengua catalana ha de ser contemplada per part de la població immigrada com una aposta estratègica. La visualització de la llengua i la cultura catalanes també. Es tracta d'assumir que amb l'arribada d'immigrants es poden incrementar els dèficits instrumentals i socials de la pràctica de la llengua catalana, especialment perquè molts immigrants no tenen una concepció de Catalunya amb llengua pròpia, ni tampoc els incentius per part de l'Estat per reconèixer-ne la legitimitat. És per això que cal fer, primer, visibles i, després, atractives les institucions catalanes, la seva llengua i cultura a les persones que s'incorporen amb les recent sonades migratòries. Sovint, la cultura i la llengua catalanes pot restar en un segon pla de visibilitat. Cal generar processos que creïn empatia a les persones que s'incorporen a les recents onades migratòries. L'ús del català ha de formar part dels deures de la societat catalana envers el nou resident, i aplicable a tots els sectors de la societat (especialment en els àmbits de la sanitat i de l'educació), xarxes associatives ja existents i persones individuals.*

*Això també implica l'obligació dels poders públics de facilitar les eines econòmiques i els altres recursos que permetin que les diferents administracions puguin adequar-se a aquest marc d'actuació i que l'aprenentatge de la llengua no suposi per al nou resident un obstacle per al desenvolupament de la seva vida quotidiana, ni per accedir al lloc de treball, sinó que sigui amb els mateixos requisits que els ciutadans autòctons.*

*Els ciutadans residents a Catalunya, sigui quin sigui llur origen, han de poder comunicar-se entre ells i amb les administracions públiques en català. Aconseguir aquest objectiu és responsabilitat no solament del Govern, sinó també detots els poders públics i de la societat civil, econòmica i política de Catalunya. Que la llengua vehicular dels immigrants sigui el català pot ajudar molt a la seva integració. De la mateixa manera, que la llengua catalana sigui la llengua de les associacions d'immigrants pot ajudar al seu reconeixement institucional, i cal valorar molt positivament la seva tasca d'aconseguir que la immigració es converteixi en un factor positiu de normalització. El català té l'oportunitat de ser la llengua vehicular dels nous residents a Catalunya. És un moment decisiu. Ja comptem amb milers de nous parlants en la llengua pròpia de Catalunya.*

Esan bezala hauxe da Kataluniako Generalitatearen abiaburuetako bat immigrazio-politikari ekiteko.

Aurrerago, *Proposamenen* atalean eta *Objectius* edo helburuei dagokienez, 12 helburu zehatz finkatzen dira: 4.a eta 6.a dira gehien interesatzen zaizkigunak:

- 4.- Educació intercultural per a la cohesió social
- 6.- Acolliment lingüístic i ús social de la llengua catalana

#### **4.-Educació intercultural per a la cohesió social**

*L'acció del Pla situa en un lloc central tot l'àmbit de les polítiques educatives. El sistema educatiu es troba davant d'un gran repte i el Govern ha de donar respostes als canvis que l'afecten: l'arribada de nous alumnes, la diversitat cultural i les diferències educatives d'aquests, la concentració actual de l'alumnat estranger, l'oferta de recursos públics insuficient. Les polítiques educatives adreçades al nou repte de la immigració tindran com a objectiu principal fer de l'educació un àmbit de cohesió social. A més de l'augment dels recursos necessaris, i de les polítiques d'equilibri de la població estrangera als centres educatius, les prioritats principals seran la millora de l'acollida als centres escolars i el reforç de la xarxa estable d'entorn escolar i de suport a la*

comunitat educativa. Això significa que és necessari complementar i reforçar l'acció educativa dels centres docents establint continuïtats entre el centre educatiu i les diferents dinàmiques socials i culturals de l'àmbit comunitari. Es tracta d'avançar en la implicació i la coresponsabilització del conjunt d'agents socials i col·lectius educatius per treballar en la línia d'una societat cohesionada i oberta, basada en els valors democràtics, la convivència o el dret a la diferència, per crear condicions per a la igualtat i evitar el risc d'exclusió social. Cal reforçar els valors de l'educació intercultural per a tots, entesa com una preparació per a tot l'alumnat de saber viure i conviure en una societat culturalment diversa i socialment més igualitària.

Àmbits d'actuació prioritàris:

- Establir protocols d'acollida als centres educatius.
- Ampliar el treball educatiu a l'entorn tenint en compte el teixit associatiu i corporatiu del barri.
- Millorar l'equilibri de l'alumnat d'origen estranger als centres educatius de Catalunya.
- Millorar l'accés a la formació d'adults.
- Determinar recursos suficients allà on les càrregues de treball es veuen afectades.
- Facilitar el coneixement de les llengües maternes.

## **6.-Acolliment lingüístic i ús social de la llengua catalana**

*Impulsar el català com a llengua habitual de comunicació i de ciutadania a Catalunya és un objectiu del Govern. Disminuir les barreres relacionades amb el coneixement i l'ús del català per part dels immigrants és un element per a igualar les oportunitats de tots els ciutadans que viuen a Catalunya. La promoció del català entre la població immigrada es farà atenent situacions d'origen o de context social i laboral diferenciades. Per aquest motiu, la llengua catalana es converteix en una aposta estratègica per a la participació real de tots els nous catalans i catalanes. El Pla impulsa programes de foment del coneixement i l'ús del català, tant en el moment de la primera acollida amb un nou abordatge més pràctic de l'acolliment lingüístic com posteriorment amb cursos de formació de la llengua catalana. A l'àmbit educatiu, es pretén avançar en la consolidació del català com a llengua d'ús en els centres docents per part de tot l'alumnat, com a llengua vehicular, element comú d'identitat i cohesió. L'acolliment lingüístic es preveu en una àrea de treball important i es reforçarà amb més recursos, organització i metodologia. Els cursos de coneixement de llengua i entorn consoliden un itinerari bàsic del Programa d'acollida a Catalunya. Es preveu també reforçar aquelles altres accions adreçades al conjunt de la població, per tal que el català guanyi terreny com a llengua d'ús social entre autòctons i immigrants.*

Àmbits d'actuació prioritàris:

- Impulsar l'acollida lingüística.
- Adaptar la metodologia de l'aprenentatge del català com a llengua d'acollida.
- Apropar els cursos de llengua al món laboral.

- *Impulsar el coneixement del català a les entitats d'immigrants.*
- *Impulsar canvis en els valors de la llengua catalana com a llengua d'ús habitual en tota la ciutadania.*

Kataluniako Generalitateak baditu beste plan batzuk aldez edo moldez eragin nabarmena dutenak herritarren eta immigrazioaren alorrean, hemen EBPN bera izan daitekeen bezala.

Beste plan hauek oinarritzko erreferentzia dira, immigrazioaren moduko plan transbertsalak eratzerakoan. Horietako bat, hauxe:

*Pla per a la llengua i la cohesió social* (Subdirecció de Llengua i Cohesió Social. Departament d'Educació).

*L'objectiu general del Pla és potenciar i consolidar la cohesió social, l'educació intercultural i la llengua catalana en un marc plurilingüe. Entre els objectius específics hi figuren la consolidació de la llengua catalana com a eix vertebrador d'un projecte plurilingüe; el foment de l'educació intercultural, basada en la igualtat, la solidaritat i el respecte a la diversitat de cultures, en un marc de diàleg i de convivència; i la promoció de la igualtat d'oportunitats per tal d'evitar qualsevol tipus de marginació.*

Helburu zehatz horiek zerrendatu eta ildo nagusiak azaldu eta gero, Generalitateko Departamentu bakoitzak helburuok benetan bete daitezen garatuko dituen programak zehazten dira. Programa hauek hiru multzo nagusitara biltzen dira:

- I.- Harrera-politikak
- II.-Berdintasun-politikak
- III.-Egokitze-politikak

Programa horien artean, honako hauek dira gure irudiko, aztergaiarekin lotura dutenak. Eranskin gisa ere jarri ditugu, paperezko bertsioan:

- I.- Harrera-politikak:
  - Coneixement de la llengua. Persones adultes. Acollida lingüística.
- II.-Berdintasun-politikak:
  - Formació del professionals. Àmbit Educatiu. Formació del professionals dels centres educatius.
  - Formació del professionals. Atenció al públic culturalment divers
  - Millora de la capacitat individual. Alfabetització i titulació bàsica. Adultes
  - Millora de la capacitat individual. Coneixement de la llengua. Impuls i ús del català.
  - Millora de la capacitat individual. Promoció de l'aprenentatge i l'ús de la llengua catalana en el món laboral
  - Millora de la capacitat individual. Coneixement de la llengua. Formació en llengua i cultura de origen familiar
  - Millora de la capacitat individual. Coneixement de la llengua. Ensenyament lingüístic als centres d'internament
  - Millora de la capacitat individual. Dones. Programa de millora formativa de les dones d'origen estranger.
- III.- Egokitze politikak:
  - Gestió de la diversitat. Hezkuntza. Inguruarekiko heziketa
  - Gestió de la diversitat. Religios. Fomentar el coneixement de la realitat i la llengua catalana per part dels líders religiosos immigrants.

- Accions de sensibilització. Relació i convivència. Voluntaris per la llengua
- Accions de sensibilització. Relació i convivència. Tallers en llengua catalana per a la cohesió social.

Ikus, azkenik, 2005erako begiz jotako aurrekontua.

## V Pla d'acció 2005

### Pressupost

Departaments	
Departament de la Presidència	
Secretaria de Política Lingüística	1.155.000,00
Secretaria d'Esports	30.000,00
Secretaria General de Joventut	104.450,00
Direcció General d'Afers Religiosos	702.493,00
Institut Català de la Dona	46.218,00
Departament de Benestar i Família	
Direcció General d'Actuacions Comunitàries i Cíviques	84.000,00
Direcció General d'Atenció a la Infància i l'Adolescència	7.615.557,00
Secretaria per a la Immigració	2.032.268,00
Departament de Comerç, Turisme i Consum	52.000,00
Departament de Cultura	1.436.888,00
Departament d'Educació	25.799.198,00
Subdirecció General de Persones Adultes	3.890.000,00
Departament d'Interior	467.475,78
Departament de Medi Ambient i Habitatge	879.580,00
Departament de Salut	235.371,00
Departament de Treball i Indústria	23.146.287,00
Departament de Governació	156.900,00
Departament de Justícia	1.165.422,09
<b>Total</b>	<b>68.999.107,87</b>

Fons de l'Estat per a l'acollida, la integració i el reforç educatiu	
Convocatòria administracions locals	13.548.354,00
Reforç educatiu	11.096.595,16
Secretaria per a la Immigració	2.451.759,14
<b>Total</b>	<b>27.096.708,30</b>

## QUEBEC

EAEk eta Kataluniak ez bezala, Quebec (7,5 milioi biztanle; horietatik %83ak frantsesa du etxeko hizkuntza) eskumen politikoa du bere lurraldera joango den immigrazioa planifikatzeko eta, adibidez, kupoak ezartzeko, frantsesez jakin edo ez, jaioterriaren, edota immigrazio-motaren arabera.

Hango iturri ofizialen arabera, gaur egun 600.000 bat etorkin ditu: 2005ean adibidez 44.000 eta 46.500 etorkin inguru hartzeko asmoa zuten, horietatik %22 afrikarra, %27 amerikarra, %27 asiarra eta %24 europarra.

Harrera-agiria eskuratzeko unean frantsesez jakin behar zuen immigranteen kupo % 54an finkatuta zuten 2005erako. Etorkin gehienak Montrealera biltzen dira.

Immigranteen seme-alabek bigarren hezkuntza amaitu arte eskola frantsesean ikasi beharra dute oro har; salbuespen batzuk badira eskola ingelesean ikastea posible egiten dutenak, Charte de la Langue Françaisek jasotakoak hain zuten. Ingelesa bigarren hizkuntza gisa ikasten da. Hortik gorako mailetan, hau da unibertsitatean edota bigarren hezkuntzaren hurrengoetan aukeran dute frantsesez edo ingelesez ikastea: dirudienez, alofono gehientsuenek ingelesez egiten omen dituzte beren goi-ikasketak.

Izan ere Ipar Amerikan ingeles hiztunak 300 milioi inguru izateak eta frantses hiztunak berriz %2, pisu handia du erabaki hori hartzerakoan.

#### Pourcentage de la population allophone étudiant en français au Québec

Niveau d'enseignement	1971	1981	1991	2001
Primaire et secondaire	14,6 %	43,4 %	76,4 %	78,7 %
Collégial	N.D.	15,6 %	41,3 %	41,2 %
Universitaire**	N.D.	N.D.	42,2 %	45,4 %

\*\* Il s'agit des étudiants allophones de citoyenneté canadienne qui résident au Québec.  
Source: Ministère de l'Éducation, Direction de la recherche, des statistiques et des indicateurs.

#### Taux de transferts linguistiques\* vers le français ou vers l'anglais des allophones ayant effectué un transfert linguistique\*\* au Québec

Transferts linguistiques	1971	2001
Vers le français	29 %	46 %
Vers l'anglais	71 %	54 %

- Un transfert linguistique indique la propension d'une personne à parler le plus souvent, à la maison, une langue qui diffère de sa langue maternelle.
- \*\* En 1971, le tiers des allophones québécois avait effectué un transfert linguistique; en 2001, ce pourcentage était de 41 %.
- Sources : Marmen, Louise et Jean-Pierre Corbeil, Nouvelles perspectives canadiennes Les langues au Canada Recensement de 1996, Patrimoine canadien et Statistique Canada, 1999; Statistique Canada, Recensement 2001: série «analyses» Profil des langues au Canada : l'anglais, le français et bien d'autres langues, 10 décembre 2002.

Lanaren hasieran esan bezala, immigrazio-mota hau ezezaguna dugu partez, eta horren ondorioz hainbat ziurtasun kolokan jarri, eta zalantzak sortu zaizkigu. Ondorengo orriotara eskarmentua duten hainbat pertsonen iritziak, gogoetak planteamenduak eta beste ekarri ditugu, ahots eta ikuspegi diferenteen berri izatea aberasgarri nahiz interesgarri izan daitekeelakoan.

Iritzi edo gogoeta hauek multzoka jarri ditugu.

Hasteko, immigrazioaren aurrean euskaldunoi propio eta oso modu interesatuan egotzen zaigun sasi-arrazista, esentzialista eta etnizista fama hori bere tokian jartzeko, Immigrazioaren Behatokiko zuzendariaren hitzak, oraintsu egina duten pertzeptzio-inkesta bati buruzkoak (*Percepciones, Valores y actitudes de la Población Vasca hacia la Inmigración Extranjera*), eta, askotan bezala, giro mediatikoan bolo-bolo dabiltzan uste horiek bastante interesatuak direla erakustera datozenak.

Guk ere gure aldetik aitortu beharra dugu pasarte hau aukeratzekoan, apriorismo batetik abiatu garelara, hots, euskaldun gehienak abertzaleak direla.

*En principio lo que desmienten es esa opinión algo extendida de que allá donde hay un fenómeno nacionalista se desarrollan posiciones asimilacionistas, y es que ni el nacionalista tiene que ser necesariamente asimilacionista ni el cosmopolita tiene que ser aperturista frente a la diversidad cultural. Es esa una visión sesgada, derivada de discursos lógicos que a menudo no tienen nada que ver con lo que piensa la gente de la calle. La encuesta nos dice que la gente no es para nada etnicista respecto a la pluralidad de culturas ni respecto a que la gente tenga que abandonar su propia pauta cultural. Incluso la religión aparece como un dato casi marginal, como que no tiene importancia. Luego, otra cosa es qué tipo de pluralismo montaríamos con estos elementos (...).*

*(...) Desde luego, una cosa no es extensible a la otra. Es más, en todo caso es extensible a la contra: es la población de orientación más españolista, por decirlo de alguna forma, o no vasquista en la autoidentificación, la que se mostraría la más remisa a la integración de la inmigración, es decir, que cuanto más nacionalista, cuanta más autoidentificación vasquista, curiosamente se da una mayor apertura.*

*De la encuesta que habéis hecho quedan por conocer otras variables, por ejemplo cómo afecta la ideología política a la hora de las opiniones manifestadas. ¿Vais a hacerlo público?*

*X.A. Cierto, está pendiente de publicación, aunque está bastante adelantada. Ahí lo que se descubre es que hay como dos constantes en las respuestas: las mujeres, las respuestas en Álava, las de menor ingreso social, las de menor nivel de estudios... normalmente van en bloque e intensifican las suspicacias, el rechazo, el carácter restrictivo hacia la inmigración, mientras que los hombres, Gipuzkoa, los de mayor nivel de estudios, los más vasquistas, los más jóvenes, los nacionalistas, en términos generales, dan una visión más abierta, intensificado en el caso de Batasuna, mientras es más conservador en el PNV. En el caso de los votantes del PSE, se encuentra más identificación con todo lo que puede identificarse como más*



*cosmopolitismo, y menos importancia a los peligros que pueda acarrear a lo local, al euskera... Bizkaia se sitúa en la mitad y, dado su peso geográfico, condiciona los resultados. Hay una mezcla de factores de tipo ideológico, como puede ser el nacionalismo y el izquierdismo, con otro, como el sentirse relativamente seguro dentro de la estructura social, que hace que tengas una visión más abierta hacia la inmigración, y los sectores que en un momento determinado pueden ver que la inmigración entra en competencia con ellos, o de más edad, pues con la edad aumenta la incertidumbre, generan una visión más restrictiva. Y hay un núcleo que es ideológicamente contrario a la inmigración, que es el voto que aparece como identidad españolista; es un núcleo permanente, de un 5% seguramente, aunque no está acabado el estudio como para dar cifras definitivas, donde hay un verdadero racismo. Porque lo otro es una incertidumbre al estar compitiendo los inmigrantes por los mismos recursos y referirnos en este caso a gente que ya está machacada, la que menos recursos tiene, la menos politizada. Se dan, por un lado, elementos de tipo ideológico: las posiciones de izquierda son más aperturistas, el nacionalismo trae más aperturismo, una buena situación económica trae más aperturismo, y un alto nivel de estudios, Gipuzkoa, como provincia simboliza todo eso. Luego, en Gipuzkoa habrá de todo, y hay que mirar las desviaciones típicas y demás, y también si la media es producto de posiciones extremas o se sitúan el grueso en esa banda... en fin, son datos a afinar que aparecerán cuando finalicemos el estudio.*

Xabier Aierdi, Immigrazioaren Euskal Behatokiko zuzendaria in HIKA 167, 2005eko uztaila

---

Jarraian, euskal gizarteko zenbait pertsonen iritzi-gogoetak paratu ditugu, han-hemenka egindako planteamendu nagusiak eta sortzen ari diren zalantza handienak behintzat islatzen dituztelakoan:

*"Eremu oso euskaldunetako zenbait euskal hiztunek haserrea adierazten dute langile etorkinek gaztelaniaz hitz egiten dietenean dendetan, tabernetan, jatetxeetan... Kasu horietan agian komeni da gogoeta egitea: zenbateraino eska diezakekegu etorkinei zerbait, hori bera ikastea autoktono askok beharrezkotzat jotzen ez dutenean: euskara ikastea eta erabiltzea, alegia. Gizarteko beste alor askotan bezala, horretan ere, immigrazioak oztopo gehiago sortu beharrean, lehendik zeudenak jartzen ditu agerian, lehendik arazo zena erakusten du".*

*(...) Edozein modutan ere, desiragarria litzateke, etorkinak euskararekiko "sinpatikoak" izatea behintzat -Atxagaren hitzetan esateko-. Alegia, ikasten badute, ezin hobeto: baina hala ez bada, gutxienez jarrera positiboak izan ditzatela. Itxaropena, batez ere, etorkinen seme-alabengan izan beharko genuke, haiek eskolari esker euskara ikasten duten heinean. Horixe bera da autoktono elebazarrekin daukagun esperantza, simple esanda: jarrera positiboak izan ditzaten eta seme-alabak euskara ikastera eraman ditzaten (bi gertaerak lotuta daude maiz; lehenengoa bigarreneko baldintza izan ohi da). Etorkinen umeak euskaldun moduan irabazteko, eskolak egundoko garrantzia dauka, noski (...)*

Amelia Barquín, *Euskara eta etorkinen hizkuntza-integrazioa* in erabili.com (2005-01-17)

---

*“Parece obvio que para poder empezar a hablar en serio de la relación de los y las inmigrantes con los problemas sociolingüísticos que hay en este pequeño país y, más en concreto, con el euskara y su eventual aprendizaje, hace falta, en primer lugar, que vivan establemente en él. Y que lo hagan con tranquilidad, con estabilidad, sin estar excluidos. En segundo lugar, tendremos que relacionarnos con ellos y ellas pues, para que se relacionen con o aprendan lo que para algunos puede ser su segunda lengua y para otros la tercera o la cuarta, es necesario que haya empatía, que haya contacto social y psicológico con los hablantes de esa lengua, con los y las euskaroparlantes, que no son toda la sociedad sino parte de ella. Y que esa relación sea de calidad, que no se dé sólo en el autobús o cuando nos cruzamos en la acera con alguien, pues si hay aislamiento social o vida en un mundo en el que el contacto es escaso, se avanzará poco. Y tendremos que tener en cuenta la edad, que es un factor de peso a la hora de pensar donde poner los acentos y centrar los esfuerzos.*

*Y digo esto porque es fácil dar el salto a considerar como opresor o como un incordio a quien socialmente está en situación de mayor debilidad. ¿Son los camareros latinoamericanos que en verano trabajan en los bares y restaurantes de la costa vasca, en zonas muy euskaldunas, los responsables de que los pedidos no se puedan hacer en euskara? ¿O su contratación, en muchos casos en economía sumergida, responde a otros factores más de fondo? ¿Los dueños de los bares, muy autóctonos y euskaldunes ellos, no tienen ninguna responsabilidad? ¿No hay que pedirles nada a ellos, empezando porque respeten el horario establecido en el convenio? ¿Y si socialmente se convierte en un problema, aunque sea para una parte de la población, no sería mejor que el conocimiento elemental de ciertas cosas se haga a cuenta de quien les ha contratado? Y lo mismo pasa con los caseríos, o con la gente que trabaja en los barcos de pesca (...)*

Agustín Unzurrunzaga, *Euskara e Inmigración*, in HIKA 2003

---

*“Lehenengo oilozopia, gero filosofia” versus “small is beautiful”. (...) Tripa beteta pentsatzen hasten gara, eta tripa bete gabe, betetzen nahikoa lan daukagu. Bai guk hemen, bai guk kanpoan ibili egin behar izan dugunean, eta bai bai kanpokoak hona etorritakoan.*

Julen Arexolaleiba, in BAT 52, 2004ko iraila

---

*Esan bezala, etorkin asko etorri dira bizitzera Euskal Herrira, eta etorkizunean are eta gehiago etorriko dira. Dena dela, argi-ilunak daude etorkinen etorrerak euskara eta euskal kulturarentzat izango dituen ondorioen inguruan. Etorkinen etorrerak euskararentzako izango dituen ondorio buruz ezer esan aurretik, argi utzi nahi nuke, nire ustez, euskararen benetako arazoa dela bizi duen diglosia egoera, ez etorkinen etorrera. Zentzu honetan, bat egiten dut Julen Arexolaleibaren hitz hauekin: “Uste dut makalenari errua botatzea jarrera xenofoboa dela. Nik irakasleen artean sumatzen dudanean, eta idatziz ekar ditzaket kasuak, ‘bi etorkin etorri dira gure eskolara eta orain arteko hizkuntza jarrera aldatu egin dute’. Ba oso*

*hizkuntza jarrera egokirik ez zen egongo etxe horretan! pentsatzen dut nik: izan ere, bi etortzea nahikoa izan bada zegoen guztia hankaz gora jartzeko, askorik ez zegoen seinale. Ala?" (Arexolaleiba, 2004: 105). Makalenari errua bota gabe, datu bat zuen arabera, pentsa daiteke etorkinen etorrerak ahuldu egin ditzakeela euskara eta euskal kultura. Alegia, etorkinen etorrerak arriskuan jar dezake azken 30 urteotan euskarak eta euskal kulturak lortu dutena. Izan ere, badirudi etorkinen seme-alaba gehienak erdarazko erduetan matrikulat zen direla (EAE-n kultura eta euskarak lehen ere bakarrik gazteleraz eta frantsesez hitz egiten zuen jende pila hartu zuela 50. eta 60. hamarkadan, eta, nolabait esateko, aldaketa demografiko bortitzei ohiturik daudela. Euskal kulturak eta euskarak aspaldi hartu zuten etorkinen etorreraren eta aldaketa demografiko bortitzen aurkako txertoa, eta prest dago etorkin uholde berriei aurre egiteko. Julen Arexolaleibak dioen bezala, "Europaz kanpoko etorkinena, izan ere, orain arte ikusi dugun pelikula baten hurrengo kapitulua da".*

Patxi Juaristi, in Hermes 16.

---

Maria-Jose Azurmendi BAT 52 aldizkari monografikoan beste egile batzuek planteatu dituzten ideia nagusien bilduma egiten ari delarik:

*(...) Etorkinak ez dira beren baitan bakarrik tratatzen, baizik gehienez inguruaren arabera: harrera- gizartearen eta etorkin-gizartearen bitarteko zerbait bezala. Harrera-gizarteak egin behar duena etorkin-gizarteak egin behar duena adina edo gehiago aipatzen da, neurri batean harriztekoa badirudi ere. Askotan aipatzen den ideia da etorkinei zenbateraino eskatu behar zaien (euskararekiko eta beste edozein alderdirekiko) beraiek badira gaizkien daudenak. Adibidez zenbateraino eskatu behar zaien euskalduntzea, bertako zenbait euskalduntzen ez den bitartean.*

*(...)Euskalduntzearen arloan gurean tradizionalki erabili ohi den beste ideia bat da, euskalduntzea aukerazko eta ez derrigorrezko prozeduraren bitartez lortu behar dela, edo borondatez euskalduntzea gertatu behar dela. Badirudi ideia bera erabili nahi dela etorkinen inguruan dugun egoera berrian. Ez dago batere argi zergatik behar duen horrela izan euskalduntzeak, ez orain arte eta ezta orain bertan ere, batik batik bat betebeharez betetako mundu honetan, baina horrela eusten zaio ideia honi gurean. Euskalduntzea ez al litzateke izan behar bai eskubide bat eta baita betebeharrak ere? Agian gai hau eztabaidagai dago, edo egon beharko luke, oraindik ere gurean. (...)*

Maria-Jose Azurmendi, Hitzaurrea, in BAT 52

---

*Londres-en Al Kaedak egin dituen erasoei erantzunez Blair-en Gobernuak ezarri nahi dituen neurrien artean, batek zuzeneko zerikusia dauka immigrazioarekin, baina ikuspegi berri batetik. Neurri horren arabera, hemendik aurrera, etorkinei nazionalitate britainiarra emateko, berariazko zeremonia bat burutzea eta «ingelesez menperatzea» eskatuko zaie. Xedapen horrek, ongi begiratuta, badu zentzurik. Izan ere, komunitate bateko kide izateko, gutxieneko baldintza da bertako kideekin komunikatu ahal izatea!*

(...) Nolanahi ere, gaiak zer pentsatua ematen du, batez ere beste hizkuntza unibertso batetik, euskaldunetik, begiratuta. Izan ere, euskaldunari ez zaio sekulan aitortu bere hizkuntzaren ezagutza eskatzeko eskubiderik (gogora dezagun Bertendonako irakasleen itxialdi lotsagarria) immigrazio masiboari eta, kolektibitateari dagokionez (kultura, ohitura, erlijio, gizarte-ereduen aldaketa eta abarri dagokienez) beste hainbat herrik bezain uholde traumatikoari aurre egin behar izan dionean. Eta, hala ere, gure euskal lurraldean geure hizkuntza defendatzeko asmo orori aurka egin zaio eta berehala gaitzetsi da, arrazista, xenofoboa eta zaharkitua delakoan, beste hainbat irainen artean. Esan dezagun, gainera, ez dela halako erreakziorik izan Blair-en iragarpenaren aurrean. Atzean Estatu indartsu bat duelako izango ote da? (...)

Angel Rekalde, Berria, 2005eko abuztuak 23

---

Bigarren multzoko gogoetak Kataluniatik datozkigu. Gogoratu 2001eko zentsuaren arabera 6,2M lagun bizi zirela, horietatik 4.630.640 lagun (populazioaren %74,5) zirela katalanez egiteko gaitasuna zutenak, eta ulertzeko ahalmena berriz, %95,5ak.

Immigranteen etorreraren aurrean egiten diren planteamenduak ere ezberdinak dira.

*Immigrazio kopuru oso handia daukagu, 800.000 pertsona iritsi dira azken urteotan; Espainiako Estatuan, portzentajea kontuan hartuta immigrazio gehien duena da Katalunia. Ni Bartzelonako Raval auzoan bizi naiz, Ramblen beste aldean eta auzoko populazioaren %48 immigrazioak osatzen du, gehienak Pakistanetik etorritakoak dira. Horrek paisaia eta behar oso diferenteak eragiten ditu. 50eko eta 70eko hamarkadetako Estatuko immigrazioarekin gertatu ez zen bezala, oraingo hau lurralde osoan zabaldu da eta, beraz, herri txiki eta ertainek %30eko immigrazioa izan dezakete. Aurten zazpi plan pilotu jarri ditugu abian Hezkuntza, Gazteria, Kirol Sailekin eta udalekin zazpi herritan (Reus, Banyoles, Vic-Manlleu, Uldecona, Lleida, Badalona...). Kontsorzioa (700 lagun) ari da ikastaroak ematen. Ikastaroak baino harrera saioak dira. Vicen, esate baterako, etorkin gehienak Magrebekoak dira eta adibidez emakumeek haurrak eskolan uzten dituztenean bertan gera daitezene nahi izaten dugu. Bartzelonara bidaiak egiten dituzte adibidez.*

*Harrerari buruz hitz egiten dugu asko eta guk uste dugu harrerarik ezin dela egin hizkuntzari buruz hitz egiten ez badugu. Gaztelania ikasiko dute nahi gabe, baina katalanaren harrera ez badugu prestatzen bizkarra eman diezaioke. Gure gizartea hizkuntz anitza da, zenbait herritan 50 hizkuntza hitz egiten dira. Katalanak kohesio sozialerako balio behar digu eta baita identifikaziorako ere.*

*Zergatik? Eduki linguistikoa eta baita soziala ere baduelako eta jendea oso gustura dago. Nik zifrak ikusi aurretik zaila ikusten nuen, adibidez, Hego Amerikakoak hurbiltzea, gaztelania badakitelako. Alabaina, ikastaro hauetara datozenen erdiak dira Hego Amerikakoak. Hauek diote esfortzuaren zati bat egina dutela eta beste zatia falta zaiela. Saharatik beherako Afrikako jendeak hizkuntz esperientzia oso anitza du. Ez zaie hain arraroa egiten hemen bi hizkuntza hitz egitea, gutxi ere iruditzen zaie. Badago jarrera paternalista esanez: "Gizagaixoak, badaukate nahikoa eta ez iezaiezue bizitza konplikatu*

*katalanarekin". Hori ezin dugu horrela utzi. Immigrazio hori aukera bat izan daiteke, (ez soziala eta humanoa soilik, linguistikoa ere bai) edo izan daiteke presio faktore bat. Guk aukera izan dadin egingo dugu apustu.*

Miquel Pueyo, Kataluniako Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia, in *Larrun*, 2005eko maiatza, 1990. alea

---

LARRUN.- Etorkin gero eta gehiago duzue Katalunian. Immigrazioa arazoa da katalanarentzat ala aukera?

*Guretzat aukera da. Katalana azken urteotan etorri diren eta hemen geratu nahi duten hainbat kulturentzat harrera hizkuntza moduan eta integratzaille moduan ikus dadin nahi dugu. Immigrazioaren fenomeno ez da berria, Katalunian beti izan dugu immigrazio handia.*

Oraingoa beste molde batekoa da ordea.

*Bai, oraingoa adinako anitza ez da izan inoiz. Jaiotze tasa beti izan da baxua eta industriarako, lanerako jendea behar izan denean immigrazioa gertatzen zen. Orain gertatzen dena da kultura, hizkuntza eta erlijio aniztasuna aurreko immigrazioetan baino askoz ere nabarmenagoa dela. Guk uste dugu kolektibo berri hauek Kataluniako gizartean integratzeko aukera dugula. Elkartekook adibide bat jarri ohi dugu: Madrilen edo Valladoliden hamar urtez bizi izan den Ekuadorkoak segituko du ekuadortarra izaten. Aldiz, Katalunian beste hainbeste urte bizi eta katalana ikasi eta hitz egiten badu askoz ere azkarrago egingo da katalan. Katalana erabiliko ez balu, agian, ez litzateke hori gertatuko. Beraz, hemen hizkuntzak potentziala du eta ustiatu eta ondo landu behar da. Etorkinek ikus dezatela katalana berea izan daitekeela, ez dela gauza arrotza. Beraz, batetik, katalana zer den azaldu behar diegu eta bestetik, lortu hizkuntza bereganatzea. Gaia zaila da, hala ere. Kanpotik datozenak lanera datoz, bizi maila hobea nahi dute, ballabide ekonomikoen bila datoz, dirua behar dute senideei bidaltzeko... Horrek ez du esan nahi ordea, diskriminatu behar direnik eta onartu behar denik beraiek katalana ikasi beharrik ez dutela. Katalan hiztunei mezu hori bidali nahi diegu, zeren ohikoena da etorkinari zuzenean gaztelaniaz egitea. Egin lehenengo hitza katalanez*

Daniel Mundet, Plataforma per la Llengua.; *Larrun* 1990, 2005eko maiatza

---

Ideologia linguistikoei garrantzia eman diezu zuk. Zer esan nahi du zuretzat kontzeptu horrek?

*Hizkuntzaren gaitasunarekiko eta erabilerarekiko mentalitatea. Jendeak nola baloratzen du zer diren hizkuntzak eta zertarako diren? Ezinbestekoak dira pentsaera horiek, zeren horien arabera hartzen dugu jarrera bat edo beste. Kontzeptu hau interesgarria iruditzen zait, zeren gazteen esparrua lantzen aritu*

*izan naiz eta lehen aipatu ditugun arbuio horiek agertzen dira. Unibertsitate honetan (Universitat de Barcelona) berriz, eleaniztasuna gai klasikoa da, munduko unibertsitate eleanitzenetakoari buruz ari gara hitz egiten eta egunero gogoetatzen da gelan zein hizkuntza erabili behar den. Unibertsitate honetan (65.000 ikasle) egindako azterketan konturatu ginen hainbat ikasle katalanaren aldeko jarrera oso ahula zuela. Kezkagarria da guretzat hori. Ikasle horrek katalana Soriako edo Manchesterreko bat etorri orduko baztertuko luke, edozein modutara ere, utzi egingo luke hizkuntza. Horrekin ez dut esan nahi unibertsitateak eskaerara, hizkuntz aniztasunera egokitu behar ez duenik, baina aurkitu dugu «hizkuntzarekiko leialtasun eza» deitzen diogun jarrera. Adibidez, zer egin Erasmuseko ikasleekin? Askok ez du pentsatu norberaren erabakiek nola eragin dezaketen hizkuntzarengan. Jende askok kanpoko ikasleari mesede egin nahi ziola ikusi genuen. Baina horrek nora garamatza? Fakultate guztietan katalanaren erabilera murriztera? Ez da hori gertatu, baina denek hori egingo balute atzera egiten hasiko ginateke. Unibertsitateen arteko mugikortasunak hori dakar eta orduan nola antolatuko dugu hau? Dena bazterrean utziko dugu? Astia emango diegu ikasle hauei katalana uler dezaten? Bigarren hori egin nahi dugu*

Emili Boix Fuster, in *Larrun* 1990, 2005eko maiatza

---

Gaiarekin aurrera jarraitu aurretik, interesgarri iritzi diogu gure hizkuntza-inguruari eragiten ari zaizkion bi faktoreri erreparatzea:

- Bata, populazioaren zahartzeari
- Bestea, euskal hiztunaren arketipo-aldaketari

Demografiaren zahartzea zertan den jakiteko, hona hemen Patxi Juaristik emandako hainbat datu eta ondorio:

*Akitaniako INSSEk, Nafarroako Gobernuko Estatistika Zerbitzuak eta EAEko EUSTATEk ematen dituzten datuen arabera, Euskal Herriko ugaltze tasa 1,5ekoa zen 1995 urtean (0,92 EAE-n eta 1,96 Iparraldean eta Nafarroan); hau da, 1,5 ume jaiotzen ziren bikoteko, hogeitun urte lehenago hiru bat ume jaiotzen zirelarik (Juaristi, 2001). Belaunaldien ordezkatzeari arazorik gabe egiteko 2,1eko ugaltze-tasa behar dela kontuan hartzen badugu, argi ikusten da, Euskal Herrian, bereziki EAEn, belaunaldi-ordezkapena ez dagoela behar bezala ziurtaturik.*

*Apurka-apurka ugaltze-tasa gora joango dela onartuta ere (2010ean Euskal Herriko ugaltze-tasa 1,82 izango da: 2,08 Akitanian eta Nafarroan eta 1 Euskal Autonomia Erkidegoan), urte asko beharko dira 2,1eko mailara heltzeko. Zehatzago esateko, gaur eguneko hazkundeak jarraitzen badu, belaunaldien ordezkatzeari ziurtatzen duen ugaltze-tasa 2030 urtean, hots, 30 urte barru lortuko da (Juaristi, 2001).*


*Gauzak horrela, gero eta Euskal Herri zaharragoa izango dugu. Areago, azpimarratzekoa da gaur bertan ere munduko biztanleria zaharrenetarikoa dela Euskal Herrikoa (Saizarbitoria, 1993). Izan ere, ume gutxi jaiotzeaz gain, herrialde garatu gehienetakoa baino altuagoa da euskaldunon bizi-itxaropena. Gainera, bizi-itxaropen hau handitzen joango da datozen urteetan.*

*Euskarak gutxitutako beste hizkuntza askok dituzten arazo berdinak dituela kontuan izanik, ez gehiago eta ez gutxiago, galdera bat etortzen zait burura: zer-nolako eragina izango dute Euskal Herrian gertatzen ari diren aldaketa demografikoek euskal kultura eta euskararengan?*

- 1.– Zaharrak ugaltze eta gazteak gutxitzearekin, euskal gizarteak eraginkortasuna eta ekintza gaitasuna galduko du. Gazteak gutxitzen doazen neurrian, kultur arloko ekintzak, euskararen aldeko ekimenak edota edozein motatako kultur elkarteak sortu eta antolatzea zailagoa izango dela pentsatu behar da. Ezin da ahantzi, zenbaiten ustez, gure hizkuntza eta kultura gizarte sare aberatsa dugulako gorde direla; beraz, sare honen eraginkortasuna ahultzen doan neurri berean ahulduko dira euskal kultura eta euskara.*
- 2.– Umeak gutxitu eta zaharren kopurua handitzearen ondorio hauek guztiak are eta indartuago igarriko dira udalerritik txikietan. Horrek, epe luzean, herri hauen ahultzea ekarriko du, eta, ondorioz, baita euskararena ahultzea ere. Kontuan izan behar da herri txikiak direla euskara eta euskal kultura hobekien gorde dituztenak.*
- 3.– Hirietan piltatzeko joerak ere eragin negatiboa izan dezake euskararengan. Izan ere, nahiz eta gaur egun hirietan dauden euskaldun kopururik handienak, euskara*

*galdu egiten da erdararen itsasoan. Horren adibide argia da Bilbon gertatzen dena: euskara ondo hitz egiten dutenen kopurua handitzen badago ere, euskararen erabilerak ez du gora egin azken urteotan (Juaristi, 2002).*

**Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria-piramideak, 2000-2015.**



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren proiektzioak, 2015.

Demografia-kontuak alde batera utzita, bigarren datua euskal hiztunen kolektiboaren arketipo-aldaketari dagokiona da.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako iturriek diotenez egoera oso aldakorra eta konplexua da gurean, azken urteotan egindako ikerketek erakusten dutenez. Ezer azpimarratzekotan, esan behar da euskaldunen kolektiboan errotiko aldaketa kualitatiboa antzematen dela.

- Ez da lehen bezala landa eremukoa, eta, bestalde, euskaldun berri horren familia eta gizarte ingurunea ez da euskalduna. Izan ere, elebidun gehienak (%66,3) hirietan bizi dira, batez ere hiru hiriburuetako metropoli-guneetan eta EAEko errepide sare nagusietan lerratzen diren 10.000 biztanletik gorako udaletan.
- Euskaldun zaharren pisua txikitzen ari da, euskara bigarren hizkuntza duten gazte elebidunen inkorporazioaren eraginez. Gazteenen artean euskaldun berriak euskaldun zaharrak baino gehiago dira dagoeneko.

Bi kolektiboak kualitatiboki oso ezberdinak dira; euskaraz edo gaztelaniaz mintzatzerakoan duten erraztasunari dagokionez ez-ezik, familia- eta gizarte-mailako beren hareman sareetan duten euskaldun-kopuruaren arabera ere. Honek guztiak ikaragarri baldintzatzen du euskararen erabilera.

Hortaz, euskaldun berrien pisua gero eta handiagoa da elebidunen artean eta aldaketa horrek zuzeneko eragina du euskararen erabileran; elebidunek kontra baitituzte, kasu honetan, euskara ohiko hizkuntza gisa erabiltzeko baldintza objektiboak.

Orain arte esandakoa gogoratuz, gehienak populazio-dentsitate handiko guneetan bizi dira, hau da, erdaldun elebakarren indizea oso altua den lekuetan eta euskararen erabilera bermatua ez dagoen tokietan; euskara eskolan ikasi dute, beraz guraso erdaldunak dituzte.



Gainera elebidunen artean oro har, baina euskaldun berrien artean bereziki, gero eta gehiago dira erdal elebidunak, hau da, hitz egiteko orduan erdaraz euskaraz baino erraztasun handiagoa dutenak. Gero eta gehiago dira lehen hizkuntza gaztelania izan duten euskaldunak, gero eta gehiago dira gaztelaniaz euskaraz baino aiseago, erosoago eta erraztasun handiagoz mintzo direnak; gero eta gehiago eguneroko bizitzan erdara hutsez edota erdaraz euskaraz baino gehiago mintzo diren euskaldunak.

Etorkinen gaia, beraz, testuinguru honetan kokatu behar dela uste dugu.

Han eta hemen irakurri ahal izan duguna oinarri hartuta, badirudi etorkinen gaia kontestu zabal eta askotarikoan lantzerako beharko genukeela. Horren ildotik, hasteko bi ideia hauek oinarrian:

- Atzerriko immigranteak euskara eta euskal bizitzara erakartzeko dinamikak prestatzerakoan, faktore kulturalak, hizkuntzarenak, muinean egon behar badute ere, enfokeak ez luke hizkuntzazko planteamenduetara soilik mugatu beharko; immigrazioa oso kolektibo heterogeneoa izateaz aparte, alde anitz dituen gertakaria da eta politika, sinesmen, ekonomia eta gizarte dimentsioa ere kontuan hartu beharko dira, zeharka bada ere, prozesu horrek guztiak hemengo herritar izateko eta sentitzeko balio diezaion etorkinari. Aldi berean, hizkuntzarena, kulturarena, ez litzateke isolaturik, folklorikoki, agertu behar, sozializatzeko eta errotzeko lagungarri praktiko gisa baizik.
- Immigrazioaren gaia ez da gure panorama soziolinguistikoan isolaturik ageri den fenomeno bitxia; inertzia sozialen mendean utzi ezker, lehendik daukagun hizkuntza-joera hegemonikora metatuko den gertakaria baizik: lehengo pelikularen beste kapitulu bat alegia, Julen Arexolaleibak esana duen bezala.

Izan ere, EAEko herritar elebidunak, garenak gara, hirutik bat alegia (%32,2). Horietatik %18,5 euskaldun zaharrak, %3 jatorrizko elebidunak, eta % 10,8 euskaldun berriak (edo *hiztun potentzialak*, 2001eko Mapan esaten zaien bezala).

Erabili ere, askorik ez. EAERako erabilera-indize orokorrik ez izan arren, eguneroko bizimoduak esaten digu ez dela askorik erabiltzen —ez kuantitatiboki eta are gutxiago kualitatiboki—. Zeharka bada ere, hori berrestera garamatza ERABIL indizeak, etxean euskaraz zenbateraino egiten den adierazten duenak.

Helduen euskalduntze-alfabetatzeak eta bereziki eskolak irabazi dizkiote euskal hiztun berri gehienak euskarari, eta etorkinen kasuan ere eskolak izan beharko du gaur-biharko bide nagusia. Baina optimismorako motibo handirik ere ez dago. 2001eko Soziolinguistikazko Inkestaren aurkezpeneanesandakoaren arabera eskola bidezko EAEko emaitzok erlabizitatu beharra dago: egia da milaka eta milaka elebidun irabazi dela, baina hori bezain egia da irabazirik handiena gaztelaniaz euskaraz baino errezago mintzo diren elebidunei zor zaiela nagusiki (ama-hizkuntza gaztelania izaki, hobeto menderatzen dutelako, bateko, eta harreman-sare gehienbat erdalduna dutelako, besteko; ...sorgin-gurpila, azkenean).

Hori ikusita, galderetako bat izan liteke ea etorkinen nahiz besteen seme-alabak —onenean eta baikorrenean—, euskal eruedetan matrikulatu, eta gaurko euskaldun berri horien tankerakoak —erdal elebidun funtzionalen tankerakoak alegia— izatearekin nahikoa izango ote dugun.

Etorkinak euskara eta euskal kulturara erakarriko badira dinamika bat sortu behar dela, eta abiapuntua horretarako behar duela dudari jarri gabe, eskola edota helduen euskalduntze-alfabetatzea nahikoa ote? Eremu akademiko, formal horretatik haratago ez ote da eragin beharko? Etorkinengatik esaten ari garen honek, EAEn jaiotakoontzako ere ez ote du balioko? Arazoa, hortaz, ez ote dezente orokorrago?

Adituek idatzitakoari jarraiki, erabilera areagotzeko lan-lerro bat baino gehiago eta denak batera landu beharra dago, sagar guztiak saski berean —hezkuntza sistemarenean— jarri gabe. Normalizazio-ziklo honen mugak agerian gelditu dira, eta hezkuntza-sistemak (administrazio eta komunikabide alorrean egindakoarekin batera) nagusiki belaunaldi berrien euskalduntzea bermatuko zuela uste izan arren, ez da horrela gertatu gizartea berez konplexua delako, hezkuntzak ez dituelako bizitzaren alderdi guztiak betetzen, eta errealtate sozio-linguistikoa ere askotarikoa delako.

### **HEZKUNTZA ALORRA:**

---

Normalizazio-molde honek bere mugak erakutsita ere, egia da hezkuntza dela oraingoz euskal hiztun berriak irabazteko eta euskal gizartean sozializatzeko biderik eraginkorrena, eta, horrenbestez, etorkinen seme-alaben kasuan nahitaez erabili beharrekoa, euskara eta euskal kulturara hurbilduko badira. Hortaz, aurrena eta lehentasun osokoa da. Baina ez da eginkizun erraza; gogoratu besterik ez dago adibidez, Auzitegi Nagusiaren erabaki batek epez kanpo heltzen ziren neska-mutil atzerritarrek B eta D ereduetan sartzea gomendatzen zuten HUISen jarraibideak indarrak gabe utzi dituela.

Eskolako adinean dauden etorkin gazteekin aukerak ez dira garbiak, baina bai pertsona helduek dituztenak baino ugariagoak; beraz, horiekin ondo asmatu beharko da, beraien adina, jatorrizko hizkuntza, eskolaren eta herriaren egoera soziolinguistikoa, hizkuntzen ezagutza, aurrekoa eskolatzea, etab. kontuan izanda betiere. Xede horrekin, Hezkuntza Saila ari da prestatzen plan orokorra, etorkinekin sortzen ari diren egoera berriei erantzuteko.

Guk gure aldetik, adituek zein erakundeek gestio aldetik bereziki hobetu beharreko gisa aipatu dituztenak bilduko ditugu. Aparte utziko ditugu, hortaz, kulturarteko hezkuntzaren planteamenduaren ildotik landu diren eskoletako harrera-planen, ikastetxe proiektuen, curriculumetan etorkinen ama hizkuntzak lantzearen, eta beste hainbat alderdi pedagogiko-ideologikoren inguruko gorabeherak.

Hona hemen, beraz, hobetu beharreko gisa aipatu izan direnak adituen artean:

#### **1.- Hezkuntza-ereduei buruzko informazio-falta.**

Guraso etorkinen erabakia aztertu beharra aipatzen da: nondik datorkien eskola sistemari buruzko informazioa, nork ematen dien aholku, zergatik eta zein euskarritan, eta informazio eraginkorrik jasotzen ote duten:

- Udaletako gizarte-zerbitzuetatik
- Etorkinen elkarteetatik
- Gobernu kanpoko erakundeetatik
- Gizarte-eragileengandik
- Guraso-elkarteetatik
- Otoitz guneetatik: meskitak edo eliza ebanjelikoak, kasu

HUISek argitaratu zuen *Euskal Hezkuntza Sistema* argitalpen-gida, baina ez dakigu zein zabalkunde izan duen.

Hezkuntza bezala beste baliabide orokor batzuen berri (osasuna, etxebizitza,...) emateko harrera-gida orokorrak direla eta, Immigrazio-Zuzendaritzak dioenez, ez dago EAeko harrera-gida bateraturik; udal edo mankomunitate bakoitzak berea prestatzen omen du, gero etorkinei banatzen zaiena; eta udal guztiek ez dute harrera-gidarik. Katalunian, aurrerago ikusiko dugunez, badute berea, eta zentzukoa dirudi hemen ere antzeko bat sortzea.

EAE mailakoa izan gabe ere, eskualde mailako gida izan liteke: Sakanan adibidez 2005eko udaberrian plazaratu zuten berea aurre-matrikulazioak zirela eta.

Informazio-falta hau bat egitera dator aipatu izan den beste arazo batekin, hots, guraso askoren interes faltarekin. Izan ere, interes hori pizten ez baldin bazaie, edo ahalegina egiten ez bada behintzat, nekez espero liteke haiengandik sortzea, premia gorriagoak izan ohi baitituzte normalean.

## **2.- Etorkinen kontzentrazioa eskola jakinetan, A eredu nagusi duten eskola publikoetan eta ghetto bihurtzeko arriskua, (berezi Bilbon eta Gasteizen).**

Gipuzkoa salbuespena izan da orain arte, bai sare, bai eredu banaketari dagokionez. Adituen esanetan arrazoi nagusietako bat Gipuzkoako matrikulazio-batzordeen funtzionamendua izan liteke, ikasle etorkinak eredu eta sareka banatzeaz arduratu direnak hainbat irizpideren arabera. Gipuzkoako eredu zabaltzeko, Hezkuntza-administrazioak finkatu beharko ditu hiru lurraldeetarako irizpide bateratuak. Sindikatuek zenbait proposamenen luzatuak dituzte dagoeneko.

Horri lotuta, zenbait ikastetxek errazenera jotzen omen. Amelia Barquínek dioenez, etorkinak A eredura joateak "zaila" omen den ikasle-mota batekin lanik egin behar ez izatea dakar. Ahaztu gabe ere zenbait estatamentutan eta profesionalen artean A eredu mantentzeko eta etorkinen etorrerarekin justifikatzeko egon daitekeen interesa.

Eta horrek guztiak, azkenean, auzi nagusira garamatza, ereduak berrikusi behar horretara alegia, eta nahitaezko eskola-aldia bukatzen dutenean 16 urteko gazteek euskara, gaztelania eta ingelesa ondo menperatzen dituztela amaitu behar horretara, eta salbuespenik gabe ahal dela, ezta ikasle etorkinekin ere. Ur handiak, dudarik ez.

Bestalde, ikasle etorkinen etorrera arazo gisa hartu beharrean, erroka gisa, gogoeta gai gisa aztertu behar dutela diote. Hori, ordea, errazagoa da esaten egiten baino. Nolanahi ere, hezkuntza-komunitatearen pertzeptzio negatibo horiek arintzeko lagungarri izan liteke nahikoa baliabide pertsonalak, funtzionalak eta materialak eskura izatea, baikorki eta erroka pedagogiko gisa hartu beharreko proiektua, konponbide zaileko arazo bihurtu ez dadin. Erabakigarria izango da beraz, hezkuntza-administrazioak bere esparrua ordenatzea, beharren arabera lehentasunak identifikatuz, beste eragileekin koordinatuz eta horiei zuzentzeko neurriak zein baliabidez hornituz, baita uzta onik eman duten esperientziak ezagutarazteko guneak sortuz ere.

## **3.- Helduen Hezkuntza Iraunkorra eta Helduen Euskalduntze-alfabetatzea**

Ezinbestekoa da etorkinak euskara eta euskal kulturara erakartzea, heldu, haur nahiz gazte. Etorkin helduen kasuan, gehientsuenetan, euskarazko eskoletara joan beharko dutela esan nahi du. Eta, egun, helduak bi bide nagusi hauek ditu:

- Helduen Hezkuntza Iraunkorreko zentroak.
- Euskaltegiak.

Helduen Heziketa Iraunkorrean, euskara eta gaztelania irakatsi beharra badago ere — horixe dio Etorkinei Orientabideak emateko Gidak, behintzat— badirudi praktikan gaztelania besterik ez dietela erakusten etorkin helduei. Horren ildotik HUISek eta Kontseiluak urtebeterako hitzarmena sinatu dute egoera hori bideratu nahian. Aipagarria da ere, bestalde, BIGE guraso-elkarteak euskara klaseak antolatu dizkiela eskoletan: «Guraso hauei oraindik ematen zaien mezua da Euskal Herrian gizarteratzeko bide bakarra gaztelania dutela, euskarak ez diela aterik irekiko».

Eskola-orduetatik kanpo, ikasle immigranteen kopuru nahikoa duten Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako aretoak erabili izan dira ikasle horien gurasoei ikastaroak eskaini ahal izateko. Euskara ikasteko arazoak izan dituzten ikasleei ere modu ludikoan laguntzeko saiorik ere egin dute eskola-orduez kanpo.

Ekimen horiez gain, interesgarria izango litzateke atal-hasierako ideietan esaten genuen horren ildotik, euskara eta euskal kultura erreminta kulturalak, sozialak eta laboralak hornitzen dizkieten ezagupide gisa ikustea, euskarak balio erantsi bat izatea alegia, eta programa bereziak eta progresistak transmititzeko balio izatea; emakume/ama etorkinen artean adibidez.

Euskaltegien kasuan gorago aipatu dugu IPES-Palankaren esperientzia. Aipatu gabe utzi dugu AEK-k egin lana, eta zeharka aipatu dugu HABEk sortutako AISA metodoa. Pixkanaka-pixkanaka esperientzien multzoa hasia da koxkortzen, eta agian eskarmentua elkarri trukatzeko fororen bat izatea interesgarria litzateke, ikasmaterialetan, asistentzian... egon daitezkeen gorabeheraz hitz egiteko.

Askotan aipatu izan da euskara ikasteko formato laburragoen beharra, ikasketarako metodo azkar, arin eta sinpleak, alegia: *100 esaldirik erabilienak. Eguneroko bost hitzak euskaraz*, oinarri-oinarrizko hizkuntza lanabesak eskuratzera bideratuak. Hiztun berri hauen etorrera, guztiontzako balioko duten formato laburreko ikastaro horiek lantzen hasteko/segitzeko aitzaiakia izan liteke; berdin-berdin erabileremu jakinetarako beste batzuk jorratzen segitzeko ere (Jatetxe-tabernetakoa kasu; Bulegoko euskara, etab.).

## **ADMINISTRAZIO MAILA**

---

Administrazioan maila diferentetako erakundeak ditugu, zein bere eskumenekin. Lan honetan bi mailatan arituko gara, udalenean eta EAeko gobernuarenean.

### **Udal-administrazioaren maila**

Udal-administrazioen artean egoera askotarikoa izango da seguruenik. Baina pentsatzekoa da, a priori behintzat, eragiteko bi gune tekniko nagusi ditugula: euskara zerbitzua eta gizarte-zerbitzua/immigrazio-teknikaria.

Zentzuak esaten digu etorkinak euskarara hurbiltzeko bideak egin nahi izanez gero, aipatu bi gune hauek gutxienez elkarlanean aritu beharko dutela.

- Immigrazio teknikariaren zereginak aletzen, **Immigrazioko Toki Plana** aipatu da (gogoratu ordea, oraingoz udal bakan batzuk baino ez dutela; dena den, halakorik ez dutenetan gizarte-zerbitzua dago).
- Euskara-teknikariak ere, bere aldetik, udalerrian, mankomunitatean euskararen plan orokorra ere abian izango du (EBPNren ildokoa, Kontseiluaren ildokoa edota berak bere moldez landutakoa).
- Zentzuzkoa dirudi, beraz, bi gune hauen artean negoziatzea zein lan-lerro eta ekintza gauzatuko den helburu hori lortzeko —**etorkinentzako harrera-plan**ean adibidez—, arduradun politikoen laguntzaz.
- Zentzuzkoa dirudi, halaber, udalerrien izaera demolinguistikoari erreparatuta, eta indarrak ez sakabanatzeko, lan litezkeen helburuen zerrenda mailakatua eskaintzea jarraibide gisa, EBPNrekin egin den bezala adibidez: zeregin horretan interesgarri litzateke hortaz, EAEn dauden immigrazio-planen ekimenak biltzea, baloratzea, kontrastatzea eta horiek gehi beste batzuekin, ereduaren arabera katalogoa lantzea eta udalei eskaintzea jarraibide gisa. Beste horrenbeste egin liteke, EAErako oro har balio dezakeen argibidezko materialarekin ere.

### Eusko Jaurlaritza

Katalanei kopiatuz, hemen ere euskal hizkuntza eta euskal kultura begien aurrean jarri behar zaizkie, ikuskor egin behar, eta harrera-unetik bertatik bada hobe; gainerakoan, oso eskualde jakinetan ez bada, nekez espero liteke lehen urratsa haiek ematea, premia larriagoak izango baitituzte seguruenez.

Quebecen edo Katalunian landu duten materiala xehe aztertu ez badugu ere, bai ikusi dugula beren harrera-gida eta bestelako materialetan oso-oso presente dutela beren herri-izaera, kultura eta hizkuntza etorri-berriari erakutsi beharra. Ikus, adibidez, Katalunian landu duten *Harrera-Gida*ren aurkibidea:

1. Cataluña
2. La población en la que vive
3. Aprender catalán
4. Es necesario tener estancia o permanencia legal
05. El trabajo
06. La escuela
07. La vida en familia
08. El acceso a la sanidad
09. La vivienda
10. Los impuestos
11. Transportes y servicios

EAEko Immigrazio Planak azken urtea duen honetan, ona litzateke Immigrazio Zuzendaritzak edo/eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak materialok aztertea eta, egoki iritziz gero, antzekorik lantzea datorren plangintzaldirako.

Gure burua haiei ezagutarazi behar horretan, eta oro har aipatzen den informazio-falta zuzentzeko, komeniko litzateke etorkinak biltzen eta ordezkatzeko dituzten elkarteekin aurkezpen-bilerarik egitea harreman-bide egonkorrik izatea, Integrazio-Fortik at. Elkarrekin gure mezu honen berri-emate edo enbaxadore izan beharko lukete beren komunitatetako kideen artean, sinergiaritasunean irabaziko genuke.

Halaber giza talde honekin lanean aritu diren gizarte-eragileekin ere ideiak kontrastatu beharko lirateke, eta haien ikuspuntua eta eskarmentua gutxienez, zein den jakin edozein programa garatzen hasi aurretik:

- Gobernu kanpoko erakundeekin: SOS arrazakeria gutxienez
  - Kultura eta euskara erakundeak: IPES Palanka eta AEK
  - Guraso elkarteak. BIGE, BAIKARA
  - Eliza ingurukoak: Cáritas
  - Sindikatuak: STEE-EILAS gutxienez
- Espainiako gobernuak telebista publikoa baliatu du TVE-La2 katea *Con todos los accents* saioa emateko igandero goizeko 09:30ean. Etorquinei zuzendutako erreportaiak emango dituzte eta beraien arteko komunikazioan bide berriak zabaltzen saiatuko omen. Aurkezleak kolonbiarrak izango dira.  
Eusko Jaurilaritzak gaur egun *Immigranteen ahotsa* aldizkaria diruz laguntzen du. Ez dakigu zein zabalkunde duen, eta horrelako edukirik eskaintzen ote duen sistematikoki. *Herri-Irratian* ordu erdiko saio bat izaten da asteazkenero, Immigrazio Zuzendaritzak bultzatua
  - Etorquina pixkana kokortzen ari den esparru den neurrian, interesgarri litzateke objektiboki jakitea zertan den, eta zeintzuk diren joera nagusiak hizkuntza eta kultura aldetik, besteak beste. Horrelakoetarako *Ikuspegia* Immigrazio-Behatokiaren eta HPSren arteko elkarlanak beharrezkoa dirudi. Aztertu beharko dira etorkinen bigarren belaunaldien hizkuntza-jokabideak edota akulturazio-prozesuak adibidez.

HPSk ikerketa, gogoeta eta ezagutza sortzeko gunetan parte hartu beharko luke, Immigrazio Zuzendaritzarekin koordinatuta, Foroan egiten duen bezala. Halaber Zuzendaritza horrek abian jarritako *BILTZEN*, *HELDU* moduko ekimenetan esku-hartu ere eta jarraipena egin beharko luke.

Baina aurreneko puntuan esan bezala, lanik handiena udalen harrera-planerarako eredu araberako helburu-neurriak finkatzen/proposatzen, eta informaziozko materiala lantzen izan beharko lukeela dirudi, baita besta maila batean 2006tik aurrera landu beharko den EAEko Immigrazio Plan berrirako irizpide eta programak jasoarazten egin beharko duen lana ere.

## AUZO ETA KALE GIROA

---

Etorkinak integratu egin behar duela errepikatzen dugu hitzetik hortzera, euskal hizkuntzak eta kulturak erraztu egin behar diotela bide hori. Etorkinak integratzekotan, ordea, non integratu eduki behar du. Eta euskal hiztunak ikusteko modukoak ote gara herri honetan? Edota segun eta non? Ba al dago euskal hiztunen eta etorkinen arteko komunikazio-gunerik bertako hizkuntza ikasten motibatuzko, eta batez ere, ikaskuntza horri zentzua emateko? Eta ez etorkinekin bakarrik; orokorrago ere planteatu liteke: zein elkargune dute euskaldunek, zahar nahiz berriek, biltzeko eta giro atseginean euskaraz egin ahal izateko. Zer daukagu hiri handi eta hiriburuetan, euskaldunen eta etorkinen gehiengoa pilatzen ari zaigun horietan alegia? Guk dakigula uneotan kafe-antzokien gisakoek betetzen dute bereziki bilgune ludikoen funtzio hori (euskara-elkarte, euskaltegi, ikastola, etab.ek ere zeharka agian). Toki egokiak izan litezke kultura eta balioak konpartitzeko, elkarren ezagupidea egiteko, eta gastronomia, artea, musika eta gisakoekin ahal den ondoena pasatzeko, azken batean,

hurbileko harreman-sareak sortuz etorkinari talde zabalago bateko kide sentiarazteko, eta bere hizkuntzan nahiz kulturaren errespetatzen zaiola sentitzeko. Horrelakoak, gutxienez, beharko dira.

Eta ez etorkinengatik bakarrik. Hizkuntza omen da erabileraren poderioz hobetzen den tresna bakarrenetakoa, eta erabiliz bakarrik lortuko dute euskaldun berriek, adibidez, gero eta gusturago, sarriago eta aiseago egitea euskaraz.

Dena den, zein irudipen ote du etorkinak gutaz? Talde sozial gisa ikusiko ote gaitu?

Izan ere hiztun komunitate kohesionatua da jomuga, bizi-indarraz hornitua, eta kultura, ekonomia, kirola, politika, gizartegintza... eguneroko bizimoduko edozein esparrutan izaera dinamikoa, irekia eta propioa erakutsiko duena, eta hiztunak gero eta gaituagoak, kontzienteagoak eta koherenteagoak izango dituenak. Bere buruaz pertzeptzio psikosozial ona izango dutenak, eta inguruko taldeak erakartzeko ahalmena izango duena. Gauzak euskaraz egingo dituenak, eta, gero eta gutxiago euskararentzat; sinbolismoan galdu eta funtzionalitatean irabaziko duena.

Sormena eta kemena behar da, ekimen gustarrien bidez hirietan euskararen presentzia handitzeko, euskaldunak euskaldunekin euskaraz egitera animatzeko eta bide batez, etorkinak nahiz etorkin ez direnak ere euskarara eta euskal kulturara erakartzeko. Baina ghetto edo erreserbako zoko-giro itorik sortu gabe.

Koxka hori aktibatzean dago, ordea. Auzogintzan eta zerbitzugintzan. Lantegi horretan lan-lerro bat baino gehiago eta denak batera landu beharra omen dagoela diote adituek. Baina hasteko, planteamendu bat, postura-moduko bat, guretzako logika bat: hona hemen Joseba Irazuk, Atxagak luzatutako hari-muturra:

*Egoera honetatik ateratzeko, euskaldunok, gutxiengoa izanda, behar duguna erresonantzia kaxa bat da: guri entzun egin behar zaigu. Eta horretarako, minimoa protokolo batzuk antolatzea da. Esaterako, norbaitek hitzaldia euskaraz eman behar duenean, politikoki inkorrektoa behar luke izan, gaizki ikusia, hizlariari erdaraz hitz egiteko eskatzea. Gutxiengoa izanda, gure logika ezarri behar dugu, zeren eta bestela beste logikek jango gaituzte. Hiru motatako erresonantzia kaxak daude: komertzialak, ideologikoak eta komunitatearena, hizkuntzarena (...)*

Edozein komunitate kohesionatzeko, trinkotzeko, erreferentziak landu beharra dagoela esan ohi da. Erreferentzia ortodoxoak eta heterodoxoak, doxia-dunak beti, eta uniformizazio eta adoktrinamendutik iheska.

Egungo gizarte mediatikoetan orotariko erreferentziak sortu eta zabaltzeko tresna-sorta eraginkorrik bada, komunikabideena da horietako bat. Optimizatzen al dira, ordea, euskarazko komunikabide publikoak, dagoeneko badauzkagunak? Gertaera erreferentzialak izan direnean adibidez, 2001eko irailaren 11n edota 2004ko martxoaren 11n, gainerako telebistak borborka ari zirelarik, behar besteko informaziorik, analisisirik, mahai ingururik... izan ote dugu euskal hiztunok? Gehixeago asmatu da entretenimenduzko edo umorezko saioekin (Alkain, Soroz, Irureta, Goenkale eta koadrillarekin...). Hala ere, euskara heldu-aroko erabilera-eremu berezi, garrantzizko, atseginetara zabaldu nahi bada, eta telebista publiko autonomikoak adibidez horretarako lanabes izan behar badu, ez ote da urteotako programazio-ildoan birplanteatu beharko, proiektuari heldutasuna, sinesgarritasuna eta sendotasuna eman nahi baldin bazaio behintzat?

Izan ere, errealtatea bera bezain egoskorrik ez dago, eta datuak ere hortxe daude: azken 11 urteotan ETB1 euskarazko telebista katearen audientzia ez da deus ere igo. ETB1 euskarazko kateak % 5,5eko audientzia zuen orain dela 11 urte, 1993an; iaz (2004), berriaz, 11 urte geroago, % 5,3ko audientzia izan zuen. Beraz, 11 urteko tartean euskarazko



telebistak ez du bat ere audientziarik irabazi. ETB2 gaztelaniazko kateari dagokionez, 1993an, audientziari dagokionez, % 10,7ko batez bestekoa zeukan eta 11 urte geroago % 17,1ekoa du: ia zazpi puntu gehiago. (TNS enpresaren 2004ko urtekaria).

Telebista digitala ate-joka daukagu gure etxeetan, lanak behar bezala eginda harrapatuko ote gaitu?

Euskal hiztunen komunitateari orotariko erreferentziak eskaintze horretan, helduaroko bizitzaren parte handi bat jaten digun beste eremu serio, garrantzizko eta erreferentziala, lana da. Ehun enpresa inguru ari dira lana euskaraz ere egiten; noizko multzo kokkor hori handitzeko eta ikusgarri egiteko ahalegin sistematiko bezain sendo bat? Noizko herri honetan handietan handiena den enpresa publikoari, administrazioari bere legeak bete, eta herritar euskaldunaren eskubideak errespetarazi eta betearazteko saio serio bat?

Bizitza publikoan oso presente dagoen beste giza kasta bat, politikariena. Noizko gaztelaniaz bakar-bakarrik egiteko dagoen lojika hori, euskararekin ere berdin-berdin aplikatuko duten politikariak, kargu publikoak; noizko gaztelaniazko azpi-tituluak erdal albistegietan, Kataluniako Estatut berriaren onarpenarekin ikusi-berri dugun bezala?, edo Maite Artola kazetariak zioena, noizko titularrak euskaraz? Horiek eta askoz gehiago ere beharko dira dinamika pixka bat eragiteko, dudarik ez, baina komunikabide publikoena, administrazioarena edota politikariena (koherentziaz jokatu nahi badute behintzat) bereziki eskuragarriago, aktibagarriago daude beste eremu batzuk baino.

Euskaldun osoak behar ditugu, eta kulturartekotasunak bizi gaituen garai hauetan, hizkuntza-aukeraketa kontzientea egingo duten euskaldun eleaniztunak, baina euskaldunak, aurren-aurrenik. Horrek eskatzen duena ikusita, Fishmanek zioen "argitze ideologiko" hura beharrezkoa ote berriro?

Baina lehengora itzulita, ez da euskal hirietan aurrera egingo euskaraz hitz egiten ez duen jendea, etorkinak nahiz bertakoak, biltzeko gauza ez bagara; hau da, euskararen inguruan elkargune, saio, produktu gustagarriak sortzen ez badira, eta dagoeneko sortuta daudenak honetarako erabiltzen ez badira; euskara ahalik eta errazen eta modu naturalean ikasteko eta erabiltzeko ekimenak lehenesten ez badira.

## **EUSKARAREN ELIKADURA**

---

Aurreko lerroetan euskadunak talde sozial gisa izan ditugu hizpide. Orain, berriz, hizkuntzaz berataz apunte pare bat: Soziolinguistikazko 2001eko Maparen aurkezpenean honako hau hizpide hartuta " *hitz egiteko bidea erraza eta atsegina ez bada, nekez hitz egingo dugu euskaraz gehiago eta toki gehiagotan*".

Gorago esan dugu hizkuntza dela erabileraren poderioz hobetzen den tresna bakarrenetakoa, baina euskaraz egiteko bidea erraza eta atsegina al da, edo honetan ere dezente findu beharra dugu? Eta ez etorkinengatik bakarrik.

Idatzizko ereduari buruz idatziak badira ere, arazo zabalago bat ikusarazten dutelakoan, hona hemen berriro ere Joseba Irazuren hitzak, arau-emaielen hipertrofiaz:

*(...) baina erakundeari diogun maitasunak ez gaitu itsutu behar, eta uste dut benetan esan daitekeela gaur gutxienez bi huts egiten dituela Euskaltzaindiak. Bata da hori, hipertrofia, ez dabilela neurrian, eta bigarrena ez dela konturatzen non ereiten duen hazia. Gure zailtasun txiki horiekin horixe gertatzen da. Orduan,*

*jakina, alde batera tresna ari gara kamusten, garbizalekeriagatik, ari gara kamusten eta ari gara pixka bat baldartzen. Bestetik, halako arautropismo izugarri bat sortzen ari gara, hipertrofia izugarria arauena. areagotu egiten dute "bizi zailtasuna".*

*(..) Zailtasuna. Zailtasuna dela-eta jendeak utzi egiten dio hizkuntzari. Hori da ondorioa, hori da nik etengabe ikusten dudana. Halako egi xume baina borobila da hau, hau da elefantea pasilloan: zailtasunak zapuztu egiten du jendea, uxatu egiten du, jendeak utzi egiten dio hizkuntzari. Ez dugula ikusi nahi? Ez dugula esan nahi? Nahiago dugula disimulatu? Ez dut ukatzen, nik badakit hori oso humanoa dela, baina azaldu ere azaldu behar da.*

Iñaki Seguroak jartzen dion deitura ere ez dabil oso urruti: *eusbakofha*, hau da, "euskara bakandu ofizial hiper-arautua".

Aurrekoa alde batera utzita, pendiente dugu hizketa-erregistroen lanketa, lagunartekoa bereziki, eta baita arrunta bera ere. Eta bi horiei lotutako hizkuntza-eredu gustagarri bat, libreagoa eta freskoagoa, ahozkotatasuna bereziki landuko duena. Eta agian tokian tokiko euskalkiei ere tartea utziko diena, herri-hizkerak euskararen bixigarria direlako:

*Bestalde, euskara batua euskara "ona" balitz bezala aurkeztu zen, eta hori ez da zuzena. Herri hizkerak nahiz batua biak dira onak. Kontua da bakoitzari bere esparrua dagokiola. Eginkizun batzuetarako herri hizkerak dira onak eta, besteetarako, batua. Hori ez zen ondo azaldu, eta gaur egun ere asko dira horretaz jabetzen ez direnak..*

Koldo Zuazo

Bastante jende ari da erregistro berriak landu nahi horretan. Azken ekimena, guk dakigula, EABn landutako Euskaren Kalitatea txostenaren ondotik egina da, eta *Euskadi Gazteako* esatariekin garatu da. Hona hemen *Berriak* zekarren kronika:

*«Hainbat hitz eta esamolde zerrendatu ziren, eta horien gaineko proposamenak egin genituen. Esatari guztiek zenbait proposamen onetsi dituzte eta maiztasunez erabiltzen saiatzen ari dira». Bestetik, azkeneko asteetan Joserra Gartziak ikastaro bat eman die esatariei, erregistro ezberdinak landu eta euren eguneroko jardunean ballabide gehiago izan dezaten. «Orain gelditzen zaiguna da guztiari erremate bat ematea, gabezia zehatzak betetze aldera: SMSen hizkera, adjektibazioa, korteen esamoldeak...». Ekimenaren jatorria tentsio batetik datorrela uste du euskal soziolinguistak: «Tentsioa da kalean erabiltzen den euskaratik esatari batek erabili beharko lukeen euskara aberatsera. Bien artean distantzia handiegia bada, eten bat sortzen da esatariaren eta entzulearen artean. Guztia bizi dugun errealitatearen isla da. Hori horrela dela jakinik, saia gaitezen metro bat aurretik joaten eta erreferentzia linguistikoa izaten.*

Erregistroak landu behar honetan, komunikabideak eta eskola berriro ere ditugu erremintarik onenak, zabalkundea egiteko bereziki.

Hezkuntza-alorrean aldaketa-garaiak aurreikusten dira, besteak beste ereduak berrikusi beharra dagoelako eta horri lotuta ALTE-k (Association of Language Testers in Europe) definitutako maila eta zertifikazioak ardatz hartuta, EAEko ikasleen euskara maila neurtzeko tresnak sortzen ari direlako HUISE eta ISEI-IVEI.

Horrek esan nahi ebaluazio-parametroak lantzen ari direla, eta unea izan litekeela ahozkotatua eta adierazmena/ komunikazioa (eta ez bakarrik gramatika) izatea neur-parametro horietako batzuk.

Adierazmena eta ahozkotatua hizpide, honako hau zioen Tasio Erkiziak, Gara-n:

*Gure ikastetxeetan ahozko erabilera gutxiegi lantzen da. Jauzi erraldoiak eman beharrean gara. Aspaldi batean entzun nion Koldo Izagirre zuzentasunaren izenean euskararen bizitasuna galtzen ari ginela. Gauza biak behar ditugu eta ez da erreza lehentasunak jartzen hastea. Baina kontuan izanik neska-mutilek euskara erabiltzen ez duten neurrian hizkuntza pobretu egingo zaiela, erabiltzen ez den hizkera hil egingo dela, euskara biziago erakusten saiatu behar dugu, horretarako administrazioak ikastetxetako programazioak eta metodologia bera sakonki berrikusi behar duelarik.*

*Herri euskaldunetan hizkera kolokiala kalean eta lagunartean ikasi dezakete, baina zonalde erdaldunetan non ikasten dute? Euskaraz mintza daitezen gela-hizkuntza izatetik aparte, euskara, gutxienez lagunarteko-hizkera izateko gaitasuna lortzen lagundu behar diegu. Zein bitarteko eta aukera ditugu guzti hori eskaintzeko*

Eta atal honetako apunteekin bukatzeko azken gai bat. Itzulpena tresna eraginkorra izanda ere, neurritz erabili beharrekoa dela esan izan da (zuzenean euskaraz sortzea hobetsiz) erdaldunaren erdalduntasuna sendotzen laguntzen duelako bateko, haratago jo ezean itxura hutseko normalizazioa lortzen delako besteko, eta zenbaitetan maila oso ona ez delako; eta deskuidatuz gero, kontrako efektua ere lor dezakeelako. Azken horren ildotik, *Harry Potter* filma, 2004ko Gabonetan; euskarazko emanaldiak 15.000 ikusle izan zituen; gaztelaniakoak, aldiz, 302.000.

Horren harira, ikusle baten iritzia Berria-n.

*"Filma euskaraz jarraitu genuenon ehuneko barregarri horren baitan, batzuk militantzia hutsagatik jarraitu genuela, gainera, momentu batzuetan filmaren haria galduz eta gutxiago gozatuz. Kontu bat garbi dago: euskara ustez ondo dakigunok ere zailtasunak ditugu bikoizketa horiekin zinemaz gozatzeko. Eta zinemaz gozatzeko eskubidea badugu euskaldunok ere, ezta?"*

Euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak elkarren lehia programatzeak ez zion batere lagundu ETB1i, dudarik gabe, goleadaz galduko zuela kontu jakina baitzen. Kontua da etxeko ekipoaren afizioak zergatik jantzi zuen arerioaren kamiseta, bereak animatu beharrean. Eta horretan ikusleak asmatzen duela iruditzen zait, bai neurri batean behintzat. Nolanahi ere, ez da batere kontu erraza. Hamar hilabete beranduago beste adibide bat: *Aupa Etxebeste!*: filma estreinatu eta hilabete eskasean: 50.000 ikusle<sup>1</sup>. Hego Euskal Herrian ikusleen % 91k euskaraz ikusi du. Euskaraz sortu izanak zerikusirik ote?

Bukatzeko lanean zehar esandakoa errepikatuko dugu, alegia hizkuntza plangintzari dagokionean, etorkina lehengo katearen beste katebegia baino ez dela, eta biziberritzeko

---

<sup>1</sup> "(...)Estreinatu aurretik, filma egiteak izan duen kostuari buelta ematen hasteko 40.000 ikuslera iritsi beharko zela aurreikusi zen. 40.000 horiek gairiditu eta hilabete baino lehen 50.000ren marka ere atzean utzi ondoren, bere xumean *Aupa Etxebeste!* irabaziak ematen hasia dela esan daiteke. Orain arte zinemetara *Aupa Etxebeste!* ikustera joan direnek 218.845 euro utzi dituzte txarteldegietan". Erabili.com (05-10-21).

saiotan aurrera egin nahi bada, lan-alor bat baino gehiago landu beharra dagoela, eta denak batera. Eta horretan, bultzatzaile eta bide-erakusle lanetan, erantzukizun berezia du administrazioak, besteak beste, legeak betekizun hori ezarri, eta horretarako behar dituen baliabide guztiak eskuratzeko modua ematen diolako.